

Kultura

'Big Affair' diskoa aurkeztera etorriko da Audience Plateruenera, bihar > 11



Jon Sobrino, El Salvadorreko bizipenak bertatik bertara

Jon Sobrino jesuita eta teologoa Jesuitak ikastetxera etorri da asteon, munduaz duen ikuspegia azaltzera. 1957an zapaldu zuten lehenengoz El Salvador. Zintzotasuna eta itxaropena izan ditu berbagai Durangon. > 8



Bellonen heriotza espetxe politikaren ondorio dela dio familiak > 2

Arkaitz Bellonen senideek eta lagunek konfiantzazko medikuagaz batera prentsaurrekoa eskaini zuten martitzenean, Elorrioko Arriolan. Bellonen heriotza kartzela politikaren ondorio dela azaldu zuten. Miren Arana familiaren konfiantzazko medikua egon zen Bellonen bigarren autopsian. Aranak dioenez, autopsien arabera bihotz jatorriko biriketako edema bategatik hil zen. Hala ere, bere ustez, kartzelako baldintzek ez dute sekula presoaren osasunaren alde egiten.



KOART 903

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Etua Ind., 9 - 6 behea - BERRIZ - Tel. / Faxe: 946 826 879

Durango > 4

Udalak batuko ditu Gasteizko autobus linearen inguruko keak

Atxondo > 6

Auzitegiak udalari eman dio arrazoi Anbotoperen auzian

Durungaldea > 3

220 lagunek izena eman dute bosgarren edukiontzia erabiltzeko

Berriz > 7

Hiltegixek 15 urte bete dituela ospatuko dute asteburuan

Herririk herri

> ELORRIO

“Krudelkeria neurtu eta sistematizatu baten bidez erail dute”

Arkaitz Bellonen senideek eta lagunek esan dute presoaren heriotza espetxe politikaren ondorio dela

> MARKEL ONAINDIA

Arkaitz Bellonen senide eta lagunek konfiantzazko medikua-gaz prentsurrekoa eman zuten martitzenean. Une gogor hauetan prentsaren aurrera irtetea ez da erraza, eta hunkituta egin zuten berba. Mahaiaren erdian eta hildako presoaren argazkia aurrean zutela, eskutik helduta, Bellonen ama eta neska-laguna zeuden. Haritz Luzarrek irakurri zuen euskaraz senide eta lagunen mezua: “Joan zen eguaztenean jaso genuen Arkaitzen heriotzaren berri. Gure bihotzek bereagaz batera ‘krak’ egin zuten”. Heriotza kartzela politikaren ondorio izan dela esan zuen: “Hamahiru urte luze hauetan erail dute krudelkeria

neurtu eta sistematizatu baten bidez”. Espetxe politika horregatik, Bellonen heriotza ez dela bat-batekoa izan uste dute: “Arkaitzen espetxealdia ezagututa, nola onartu heriotza naturala dela?”. Medikuen txostenek, momentuz, heriotza naturala izan dela dioten arren, familiaren ustez, kartzelaldian edukitako bizi baldintzek eragina izan dute.

Bellonen kartzelaldiaz

Bellonek bizitakoa kontatu zuen Luzarrek, baldintza horiek heriotzaren eragina izan dutela erakutsi guran. Duela hamairu urte eta erdi atxilotu eta torturatu zutela esan zuen, eta epaiketan fiskalak froga zuzenik ez zegoela aitortu arren, zigortu egin



Arriolan eman zuten prentsurrekoa Arkaitz Bellonen familiak eta lagunek.

zutela. Gero, hainbat espetxetan emandako kartzelaldian hirtan jipoitu zutela salatu izan zuen Bellonek: “Ezin dugu irudikatu sentitu duen amorrua, mina eta ezina, kartzelazainek, jipoitu ondoren, eskuburdinekin, biluzik, egun oso bat ohera lotuta utzi dutenean”. Gurasoek auto istripu larria eduki zuten bera bisitatzeraz zihoazela; horrek ere zelan eragin zion imajinatzea kostatu egiten zaie senideei.

Gainera, bakartuta ere denbora asko eman zuen Bellonek:

“Arkaitzen espetxealdia ezagututa, nola onartu bere heriotza naturala dela?”

baitu”. Horregatik, euren lagun eta senidearen heriotza espetxe politikak eragin duela esan dute: “Arkaitz ez da joan, kendu egin digute. Zer gertatuko zaio, bada, lore bati lurra, ura eta argia kentzen badizkiote?”.

Argipenak

Amaieran, Bellonen neska-laguna ez dagoela haurdun argitu zuten, egunotan zabaldukoaren kontra. Herritarrengandik jasotako babesa ere eskertu zuten.

Medikuaren arabera, kartzelako baldintzek eragin zuzena daukate

Autopsiek diote bihotz jatorriko biriketako edema bategatik hil zela Bellon

> M.O.

Miren Arana medikua izan zen familiaren konfiantzaz Arkaitz Bellonen autopsian egon zena: bigarren autopsian, lehenengorako ez ei zen-eta denboraz heldu familiaren eskaera. Azterketa bietako emaitzek bat egiten dutela azaldu zuen Aranak: “Heriotza bihotz jatorriko biriketako edema arin batek ekarri zuen”. Emaitza toxikologiko, histopatologiko, biologiko eta mikrobiologikoen zain daude behin betiko informea osatzeko. Edozelan ere, senide eta lagunek esandakoari bidea zabaldu zion

Aranak. Bere ustez, kartzelako baldintzek ez dute sekula presoaren osasunaren alde egiten: “Behar bezalako osasun sorospen ezak, estres egoera iraunkorrek, elikadura desegokiak, ariketa fisikoa garatzeko mugek, benetako atsedenerako aukera ezak... Horiek guztiak eragin zuzena daukate presoaren osasun egoeran”. Bellonen kasuan, tortura eta jipoi salaketak, eta senideen istripua gehitu behar zaizkio baldintza zerrenda horri.

Cadizetik Elorriora

Belloni joan zen barikua goizean

egin zioten bigarren autopsia, eta, Cadizetik (Espainia) ekarrita, zapatuan heldu zen Elorriora. Iurretatik auto karabanan babestuta joan zen. 12:00etan harrera egin, eta Arriolan ipini zuten hil-kapera hiru orduz. Arratsaldean dispertsioaren kontrako manifestazio jendetsua egin zuten lagunek deituta. Ekitaldian, dispertsioa amaitzea posible dela aldarrikatu zuen lagun batek. Horretarako, lanerako deia egin zuen. Belloni ere zuzendu zitzaion: “Arkaitz, espetxe politika honek hil zaitu; azkena izan behar duzu”.



Miren Arana medikua, bere ondorioak aurkezten.



Bellonen gorpuari harrera egin zioten Arriolan.



Manifestazio jendetsua egin zuten.



Senideak eta lagunak manifestazioaren amaieran.

Herritarrek telefono eta web bidez egin ahalko dituzte ekarpenak

‘Elorrión’ deitzen da herritarren ekarpenak jasotzeko udalaren tresna berria

> MARKEL ONAINDIA

Elorrión. Horrela deitzen da herritarren ekarpenak jasotzeko udalak sortu duen tresna berria. Telefono mugikorretarako eta ordenagailuetarako aplikazioa da, eta elorriarrek kalean hobetzeko ikusten dutena helaraztea gura dute. Baina, udaletik herritarrenganako norabidea ere edukiko du; aisialdiko agenda

eta beste zerbitzu publikoen informazioa ere egongo dira esku-ragarri aplikazioan bertan.

Aurrerantzean, herritar batek kalean zer edo zer apurtuta edo egoera txarrean ikusten bada, bere telefonotik edo ordenagailutik (*elorrión.net*) informatu ahalko du udala. Adibidez, farol bat ez dabilela konturatuz gero, argazki bat atera, eta xehetasu-

nak idatziko ditu, eta herriko mapa batean markatuko du kokalekua. Informazio guzti hori gorde egingo da aplikazioan, eta udalak automatikoki jasoko du.

Horrela, kexak edo proposamenak zehaztu diren kokalekuen inbentario antzeko bat egongo da ikusgai. Kolore berdez azalduko dira udaletik erantzuna jaso dutenak, eta erantzunik jaso ez dutenak gorriz.

Hartu-emana indartzeko

Udalak 4.800 euro inbertitu ditu tresna berriaren diseinuan eta gestioan. Iritziak Batuz enpresak garatu du aplikazioa, eta Jonathan Morenok eman zituen azalpenak martitzenean. Ana Otadui alkateak adierazi zuen tresnagaz partaidetza, gardentasuna eta zabaltasuna sustatzen segitu gura dutela: “Udalaren eta herritarren arteko hartu-emana indartzea da helburua”.



Moreno eta Otadui, aplikazioa ezarrita daukan telefono bat eskuetan.

> BERRIZ

Hiltegixek hamabost urte bete dituela ospatuko dute

Gaur gala afaria, eta bihar kontzertuak izango dituzte

> AMAIA UGALDE

Otsailaren 13 batez, duela hamabost urte okupatu zuen berriztar talde batek hiltegi zaharra, eta ordutik hona Hiltegi gazteak izan duen ibilbidea gogoratu eta urtebetetzea ospatuko dute asteburuan.

Atzo txokolatada egin zuten, eta gaur iluntzean galaz jantzita batuko dira afarirako. Aurretik, jolas-poteoa egingo dute Berrizko tabernetatik, eta afal ostean, inprobisazioagaz jolastuko dute *Inprobiorroka* lehiaketan. Publikoak ipinitako baldintzekin eta irudimena erabilita ibiliko dira lehian talde bi. Gaur DJ Roberekin dantzari amaituko dute.

Zapatuan Kokein eta On taldeen kontzertuak edukiko dituzte gaztetxean, 22:30 aldean, eta ohitura hartu dutenez, ogitar-teko txikiak egongo dira salgai afari-mokadua egiteko. Domekan, 1990eko okupazio mugimenduari buruzko dokumentala eskainiko dute 19:00etan

Argazki erakusketa

Asteburu osoan hamabost urteotako ekintzen argazki erakusketa egongo da Hiltegiaren, eta zapatuan kalera aterako dute argazki erakusketa. Horretaz gainera, gazte asanbladak urteurrenerako kamisetak atera ditu, eta salgai daude 8 euroan.

Salgai daude inauterietako herri afarirako txartelak

> A.U.

Azken urteetan egin duten legez, inauterietako zapatuan, pilotalekuan batuko dira berriztarrek afaritarako. Inauterietako afarirako txartelak salgai daude, eta otsailaren 24ra arte erosi ahalko dira. Txartelak Etxebarria estankotan eta Ama Lur liburu dendan erosi daitezke. 12 urtetik beherako berriztarrek 8 euro ordainduta erosi ahalko dute txartela, eta hortik gorakoentzat 13 euroan dago salgai.

Berezia izaten da herri afaria, mozorrotuta joatea derrigorrezkoa izaten da-eta. Herri giroan, iaz, esaterako, 270 berriztar batu ziren afaritarako. Antolatzaileek azaldu dutenez, 10 urtetik beherako neska-mutilek helduekin joan beharko dute.

Erromeria giroa

Aurten ere kuadrillen jaitsiera eta mozorro lehiaketa izango dituzte inauterietako zapatuan. DJ Robertekin erromeria doinuak edukiko dituzte afalostetako. Barikuan umeentzako ekitaldien eguna izango da, eta, aurten, arratsaldean jaialdia eduki beharrean, erromeria edukiko dute pilotalekuan, Erromeria.com taldearekin.

> DURANGALDEA

220 lagunek bosgarren kontainera erabiliko dute

Bosgarren edukiontziaz batzarrak egin dituzte

> M.O.

Amankomunazgoak Iurretan eta Abadiñoako Traña-Matienan bosgarren kontainera –hondar organikoarena– erabiltzeko esperientzia pilotua martxan ipini du. Batzar informatiboak egin dituzte, eta espero baino arrakasta handiagoa eduki dutela esan dute arduradunek, oharrean. Iurretan 101 lagun egon ziren, eta Traña-Matienan 102k parte hartu zuten.

Horretaz gainera, beste herritar batzuk ere apuntatu dira telefonoz edo webgunearen bidez. Dagoeneko, guztira, 220 lagun daude prest bosgarren edukiontzia erabiltzeko.

Autokonpostajerako deia

Landa eremuetan autokonpostajea bultzatuko dute, eta auzoka batzarrak egin dituzte egitasmoaren berri emateko.

Amankomunazgoko arduradunek azaldu dute oraindik auzotarrek badaukatela aukera konpost ontziak hartzeko. 946 232 522 telefonora deitu beharko dute izen-emateko, edo, bestela, *organikoa.mdurango@bizkaia.org* helbide elektronikora idatzi. Interesdunek formakuntza tailer batean parte hartuko dute gero, konposta euren kabuz zelan egin ikasteko.

Materia organikoaren deskomposizio prozesu bat da konpostajea, eta bere emaitza ongari lez erabiltzen da.

Batzar informatiboak egin dituzte, eta espero baino arrakasta handiagoa eduki dutela esan dute

GURE IKASLEEN AHOTAN

“Bi proiektu aurkeztu behar ditugu ikasturteko”

Irati Divasson Calvo Durangokoa da eta Industri Antolakuntzako Ingeniaritza graduako 3.maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAN.

·Zergatik aukeratu zenuen Industri Antolakuntzako Ingeniaritza? Eta zergatik MU?

Ingeniaritzako berezko gaitasun batzuk jasotzeaz gain, gradu hau kudeaketako gaitasunetara zuzenduta dagoelako gehien bat. Nik horretan zentratzea nahi nuen, kudeaketa delako benetan gustatzen zaidana, hau da, alderdi teknikoak ezagutzeaz gain, pertsona taldeekin lan egitea. MONDRAGON UNIBERTSITATEAN egitea erabaki nuen bertan dena ez delako teori hutsa, alderdi praktikoei garrantzi handia ematen zaielarik.

·Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso aberasgarria izan da, bai akademikoki bai pertsonalki. Hasieran aipatutako alderdi akademikoaz gain, klasean gehienez 30 ikasle garenaz, gure arteko gertutasunari esker, pertsonalki esperientzia izugarri baliotsua izan da.

·Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?, Alde praktikoari garrantzi asko ematen zaio?

Bertan erabiltzen den metodologiari esker, ikasten duzun guztiak errealitatean zein fun-

tzio duen ikus daiteke. Ikasturte bakoitzean, seihilekoa bukatu eta gero proiektu bat egiten da, hau da, bi proiektu ikasturteko. Seihileko horretan ikasitako teoria guztia egoera errealean praktikan jartzen da.

·Mutik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ikasitako guztia praktikan jartze horrek hasiera batetik atentzioa deitu zidan agian beste leku batzuetan aurkitu ez daitekeen metodologia delako. Horretaz gain, irakasleek ikasleekiko duten gertutasuna eta ikaslearen arteko gertutasuna aipatzeko beste puntu garrantzitsu bat dela uste dut.

· Non gustatuko litzazuke praktikak egitea?

Gradu amaierako proiektua egiteko aukera ezberdinak daukat. Inguruko enpresa baten urte bateko proiektua egitea, atzerriko unibertsitate batean lehen seihilekoa egitea, edo urte osoko proiektua atzerriko enpresa batean egitea. Lehen seihilekoan atzerriko joatea gustatuko litzaidake, eta ondoren bigarren seihilekoan Durango inguruko enpresa baten egin nahiko nuke.

www.mondragon.edu/prest

> DURANGO

“Iragarleek badakite nagusiek audientzia handia osatzen dutela”

Llum Saumell kazetariak pertsona nagusien eta komunikabideen inguruko mahai ingurua eskaini du Durangoko adinekoen udal egoitzan

> MARKEL ONAINDIA

Pertsona nagusiak al dira hedabideak gehien kontsumitzen dituztenak?

65 urtetik gorakoak dira papereko egunkarien kontsumitzaile fidelenak, irrati entzuleen artean talde handiena osatzen dutenak eta telebista aurrean ordu gehien ematen dutenak.

Hedabideak asko kontsumitzeak informatuta daudela esan gura du?

Ez dakit. Mahai inguruan galdetu dieran kontu bat da hori. Datu asko eman beharrean, galdetu egin gura izan diet ea beraiek zer uste duten: beraiei buruz komunikabideek ematen duten irudia zuzena den ala desitxuratua den. Aldeko eta kontrako iritzirik duten jakin nahi izan dut. Komunikabideak ondo ulertzen dituzten ere galdetu diet. Komunikabideok beste hizkera bat erabili beharko genuke ikus-entzuleek hobeto ulertu gaitzaten.

Ikus-entzunezkoen arloan, pertsona nagusien kolektiboak zer ezaugarri ditu?

65 urtetik gorako pertsonen kolektiboa oso zabala da. Egongo da informatuta egon gura due-

nik, baina beste batzuek komunikabideak entretenitzeko kontsumitzen dituzte.

Pertsona nagusienganako gizarateak duen irudia aldatu egin da azken urteotan?

Orain dela urte batzuk 65 urteko pertsona bat zaharra zela uste zen; ez zuela lanerako gaitasunik. Gaur egun, 65 urteko pertsona bat ez da agure bat. Kolektibo askok berba hori ez erabiltzeko eskatu dute, dituen konnotazioengatik. Orain, adin horretako jende askok komunikabideetan lan egiten du, eta oso ondo gainera.

Kazetariok ere badugu erantzukizunik gai honetan?

Kazetaritzan, presagatik edo dena delakoagatik, orokortzeko joera dugu. Zaku berean sartzen ditugu pertsona nagusi guztiak. Gazteekin ere horrela gertatzen da. Jende nagusiaren inguruan lantzen diren gai gehienak negatiboak dira. Dependentsia, pentsioen kostuak... Kontuan hartu behar da, pentsioen kostuei buruz berba egiten denean, pentsio horiek mantentzen dutela kontsumoa eta baita familia asko ere. Kazetaritzak beste aldean ere jarri beharko luke bere bu-



Llum Saumell kazetaria.

rua, eta beste irudi bat ematen lagundu beharko luke.

Komunikabideek bilakaera handia izan dute azken urteotan. Pertsona nagusiek zelan barneratu dituzte aldaketa hauek?

Komunikabideek garapen oso handia izan dute. Gazteek ez dituzte egunkariak paperean irakurtzen, Internet dela-eta. Informazioa kontsumitzeko beste modu batzuk daude: blogak, aldizkari digitalak, sare sozialak... Hori guztia menperatzea gaitza da jende nagusiarentzat, eta kasu batzuetan beste askorentzat ere bai.

Jende nagusia al da papera bizirik mantentzen duena?

65 urtetik gorakoak paperean irakurtzen du. Jende nagusia fidela da, eta ohiturak ez ditu hain

erraz aldatzen. Publizitate iragarleek arlo hau oso ondo ezagutzen dute. Badakite nagusiek audientzia kopuru handia osatzen dutela, eta kontsumitzaileak ere badirela.

Gustuko dute nagusiek komunikabideen eskaintza?

Galdera hori egin diet mahai inguruan. Hau da, ikusten edo irakurtzen dugun hori gustatzen ez bazaigu, zer egin dezakegu? Bada, erraza da: telebista edo irrati amatatu edo aldizkari hori ez erosi. Internet bidez errazagoa den arren, badituzte bideak keatzeko edo iritzia emateko. *Zuzendariari gutunak* atala, esaterako, eskura dute gura dutenean erabiltzeko eta parte hartzeko. Uste badute komunikabideek ez dituztela ondo tratatzen, zer edo zer egin dezaketela esan nahi dut. Honekin espero dut kexa mordo bat ez sortzea.

> JONE GUENETXEA

Plateruena Kafe Antzokiak zilarrezko programazioaren barruan Berbertan zikloa antolatu du otsailerako. Aurtengorako aukeratu duten gaia herri kulturgintzari buruzkoa izan da. Euskal Herrian martxan dauden hainbat esperientzia trukatzeko da proposamena. Nerea Iriarte kazetariak gidatuko ditu hurrengo bi eguetan egingo dituzten elkarrizketak.

Datorren egunean, arratsaldeko 20:00etan, Hedoi Etxarte Iruñeko Katakarak proiektua aurkeztera etorriko da. Liburu denda, kafetegia eta jatetxea batzen dituen ekimena zelan jarri duten martxan, eta zer filosofia-gaz diharduten azalduko du.

Leire Lopez Ziluagak, berriz, Gernikako Astra proiektuaren inguruan berba egingo du. Arma lantegi zaharreko erakinean kulturarako fabrika soziala sortu dute. Astra Koordinadorak kudeatzen duen espazioan herriko hamabost elkartek dihardute.

Otsailaren 27rako, Berbertanen bigarren hitzordua antolatu dute, 20:00etan. Hiru hizlari

Udalak batuko ditu Gasteizko linearen kexak

> M.O.

Arabako Foru Aldundiak esan du 2015era arte ez duela hobetuko Durango-Gasteiz autobus linea, eta horren aurrean, erabiltzaileen kexak erraztea erabaki du Durangoko Udalak. Horrela erantzun die udalak Alicia Ruiz de Infante diputatu arabarrak esandakoei. “Foru diputatuak dio kexak murriztu egin direla, baina autobuseko erabiltzaileek diote Durango eta Gasteiz arteko autobus zerbitzuak eragindako arazoek bere horretan jarraitzen dutela”.

Horregatik, erabiltzaileei kexak aurkezteko erraztasunak ematea erabaki du udalak. Herritarren Arretarako Zerbitzuan formulario bat bete behar dute erabiltzaileek, eta gero udalak eroango ditu guztiak Gasteizera.

Aldundian EAJren galderei erantzuterakoan, Alsa enpresak zerbitzuaren esleipena 2015era arte daukala adierazi zuen Ruiz de Infante, eta bien bitartean ez dutela hobekuntzarik egingo zerbitzuan. Durangokoak dira zerbitzuaren erabiltzaileen %80, eta 160 lagunek kexa aurkeztu zuten iaz, udalean. Gainera, udalari gaian inplikatzeko eskatu zioten.

Erabiltzaileei kexak aurkezteko erraztasunak ematea erabaki du Durangoko Udalak

izango dira Plateruenerako taula gainean. Eneko Etxegarai Euskal Herria Zuzenean jaialdiaz mintzatuko da. 1996an sortutako jaialdiak elkarlana eta euskara bultzatzea du helburu, besteak beste.

Kepa Urbietak Azpeitiko kultur mahaiaren izenean bisitatuko du antzokia. Herriko hainbat kolektibok osatzen duten mahaiak Azpeitiko Sanagustin kulturgunea kudeatzen du.

Nerea Iriarte kazetariak gidatuko ditu hurrengo bi eguetan egingo dituzten elkarrizketak

Zikloko azken solaskidea Gasteizko Hala Bedi irrati Manex Agirre izango da. Herri mugimenduen ekimenez sortu zen Hala Bedi irrati autogestioan oinarritzen da, eta asanblada bidez funtzionatzen jarraitzen du. Bazkidetza bidez finantzatzen den proiektuak *Halabelarriak* ditu sustatzaile nagusi.

Herri kulturgintzaren esperientzia trukea proposatuko dute Berbertanen

Iruñeko Katakarak, Gernikako Astra, Euskal Herria Zuzenean festibala, Azpeitiko kultur mahaiak eta Gasteizko Hala Bedi izango dira protagonistak



Iruñeko Katakarak proiektuaren argazkia.

Herritarrak aktibatu gura ditu EHEk, udalean euskara erabiltzeko

EHEk dio udal zerbitzuetan ez dela euskara erabiltzeko eskubidea bermatzen

> MARKEL ONAINDIA

“Udalagaz daukazu hartu-eman euskaraz izatea gura duzu?”. Galdera hori egin die herritarrei Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak. Udaleko zenbait gunetan eskubide hori ez dela bermatzen uste du; kirol-degi berrian, nagusien egoitzan eta musika eskolan adibidez. Egoerari buelta emateko herritarrak aktibatu gura ditu EHEk, herritarren “eskari zuzen eta borondateak abiatuta, aldaketak eragin eta udalagaz daukagun hartu-emanak euskaraz izan daitezke”. Beraz, udaleko erakunde eta zerbitzuetan tra-

tua euskaraz edukitzeko eskaera egitera animatu ditu EHEk herritarrak.

Hainbat aukera eskaini ditu horretarako. Eskaera orriak Plateruenean, Momotxo tabernan eta Intxaurren egongo dira, eta Andra Marin ere ipiniko dute mahaia hiru egunetan: domeka honetan 12:00etatik 14:00etara, otsailaren 21ean 18:30etik 20:30era eta martxoaren 1ean 12:00etatik 14:00etara. Gainera, martxoaren 6rako Tramitazio Eguna deitu dute; eskaerak era masiboan egingo dituzte Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 17:30ean.

Udalak eta biok euskaraz deitzen da EHEren dinamika. Adierazi dute udalak badauzkela hizkuntza politikarako esku-menak, eta euskaraz bizitzeko nahia errespetatzea eskatu diote. “Euskararen herrian bizitza gura. Euskaraz bizitzeko eskubidea daukagu, eta euskaraz bizitza gura dugu”.

Martxoaren 6rako
Tramitazio Eguna deitu dute; eskaerak era masiboan egingo dituzte



EHEko kideak, Herritarren Arretarako Zerbitzuan aurrean.

Durangoko EH Bilduren lan ildoak azalduko dituzte domekan

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko EH Bilduk ekitaldi irekia antolatu du domekarako, otsailaren 16rako. Eguerdiko 13:00etarako deialdia egin dute Andra Marin.

Ekitaldiaren antolatzaileek azaldu dutenez, Durangoko EH Bilduren gaur egungo jardunaren lan ildonagusiak azaltzea da agerraldi horren helburua. “Durangon EH Bildu ezkerreko alternatiba legez aurkeztea da as-

Laura Mintegi EH Bilduko Eusko Legebiltzarreko bozeramailea izango da ekitaldiko hizlarietako bat

moa”, azaldu dute antolatzaileek. Gaineratu dutenez, koalizioko zinegotziak eta militanteak ez ezik, herritar guztiak gonbidatu gura dituzte ekitaldian parte hartzera.

Era berean, aurreratu dute Laura Mintegi EH Bilduko Eusko Legebiltzarreko bozeramailea izango dela domekako agerraldi hizlarietako bat.

Durangon turismoa sustatzeko webgunea zabaldu dute

Iker Ocejá, turismoaz: “Fenomeno ekonomikoa ere bada, sozialaz gainera”

> M.O.

Iker Ocejá turismo zinegotziak eta Natalia Naberan teknikariak Durangoko turismoa sustatzeko webgune berria aurkeztu zuten eguaztenean. Herrian sektoreak egin dezakeen ekarpen ekonomikoa hizpide izan zuen Ocejá: “Fenomeno ekonomikoa ere bada, sozialaz gainera”. Kanpoko bisitariei begirakoa da www.turismodurango.net izeneko ataria. Naberanen ustez, tresna “erraza, erakargarria eta

moderno” da, eta Durangora bisitan etorri gura dutenen interesen arabera egin gura izan dute. Modu horretan, turistak erakartzea da euren helburu nagusia.

Agenda eta zerbitzuak

Euskaraz, gaztelaniaz, frantsez eta ingelesez erabali ahalko da, eta ordenagailu, tableta zein telefono mugikorretarako balioko du. Durango eta inguruetako eskaintzak eta zerbitzuak

agertuko dira bertan: udaleko informazioa, kultur aretoetako ekintzak... Gainera, audio batek gidatutako ibilbide baten bidez ezagutu ahalko dute herria bisitariak. Eta bizikletaz zein oinez ibiltzeko prestatuta dauden ibilbideak ere eskuragarri daude.

Turismoak merkataritzan eragina izango duela uste dute webgune berriaren sustatzaileek, eta, horregatik, “bere kalitatea islatzen” saiatu dira argazki eta bideoen bitartez.



Naberan eta Ocejá, webgunea aurkezteko prentsaurrekoan.

> MALLABIA

Txixiburduntzia antolatuko du Guraso elkarteak otsailaren 22rako

> JONE GUENETXEA

Ohiturari eutsita, Txixiburduntzi Eguna antolatuko du Mallabiko Guraso elkarteak. Arratsaldeko 16:30ean elkartuko dira Trabakun umeen jolasetan. Eguraldia lagun, kanpoan jolas tradizionalak gozatuko dute (sokatira eta txorokil batzea, adibidez). Eurria egiten badu, berriz,

Bakoitzak bere txorizoa eta makila eraman beharko du. Antolatzaileak sua gertu izateaz arduratuko dira

Trabakuko tabernan mahai-jokoak prestatuko dituzte. Maite Aranguren Guraso elkarte presidentek azaldu duenez, 18:00etan txixiburduntzia egiteko, bakoitzak bere txorizoa eta makila eraman beharko ditu. Antolatzaileak sua gertu izateaz arduratuko dira. Ondoren, txokolata beroa banatuko dute bertaraten direnen artean.

**ber
ber
tan**

Herri-kulturgintzaren
esperientzia trukea

OTSAILAK 20
**Katakrak
Astra**

OTSAILAK 27
**EH zuzenean
Kultur mahaia
Hala Bedi**



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
Landako etorbidea, 4A Durango
Tel.: 946 030 100
kultura@plateruena.net
www.plateruena.net

> ATXONDO

Auzitegiak udalari eman dio arrazoï Anbotope elkarteko auzian

EAEko Auzitegi Nagusiko epaiak dio eraikina “libre utzi behar dutela”



Anbotope elkartea Arrazolan dago, elizaren ondoko eraikinean.

> JOSEBA DERTEANO

2013ko uztailean Anbotope elkartekoei eraikinean jarraitzea ahalbidetzen zien epaia eman zuen Durangoko Auzitegiak. Zehazki, alokairu kontratua amaituta zegoela eta lokala libre uzteko eskatzen zuen udalaren demanda atzera bota zuen. Udalak erabaki horri apelazio-errekurtsoa ipini zion EAEko Auzitegi Nagusian eta urtarri-laren 27ko ebazpenak udalari eman dio arrazoia.

Durangoko Auzitegiak iazko uztailean emandako epaia atzera bota du EAEko Auzitegi Nagusiak

Epaiak dioenez, Durangoko auzitegiak hartutako erabakia “atzera botatzen dugu eta beste bat eman, zeinetan (...) alde biak lotzen dituen alokairu kontratuaren epea amaitutzat jotzen dugun”. Horrela, “lokala libre

utzi” behar dutela dio epaiak. Era berean, “lehen instantziako kostu prozesalak ordaintzera” ere behartzen ditu.

Soka luzea duen auzia

Sei urte dira udalak errenta kontratua amaitutzat eman gura zuela erabaki eta elkartekoei horren berri eman ziela. Harrezkero ika-mikan dabilta. Iaz Durangoko Auzitegiak emandako epaiak ezustean hartu zituen udal ordezkariak. Anbotope elkarteko abokatuak edukian baino gehiago formazko kontuetan oinarritu zuen defentsa eta, azkenean, epaileak 2011n ezarri zuen alde bien arteko errenta kontratuaren hasiera epea. Ondorioz, epai hark beste bost urtez eraikin hartan egotea ahalbidetzen zien elkartekoei.

Udalaren ustez txostenetan argi geratzen ei zen eraikinaren erabilera Anbotope elkartearena zela, sortu zenetik hona udalagaz izandako hartueman denak ere (errentaren ordainketa...) elkarrekin egiten dituelako. Horregatik errekurtitu zuten epaia. Orain, Auzitegi Gorenaren bidea geratzen zaie.

> OTXANDIO

Elkarte eta eragileek ikurrinaren aldeko aldarria egin dute

Udaletxeko balkoian Espainiako bandera ipini dute; ekimen jendetsua egin dute “inposizioa” salatzeke

> JOSEBA DERTEANO

Epaitetik agindua bete, eta Espainiako bandera udaletxeko balkoian ipini dute. Baina gertaera ez da oharkabea igaro. Joan zen domekan, herri ekimenez antolatutako ekitaldi jendetsua egin zuten “inposizioa” salatu, eta ikurrina balioesteko.

Trikitalariek lagunduta, otxandiar asko kalejira jendetsuan hurreratu ziren udaletxe parean hastear zegoen ekitaldira: “Jai giroan gatoz, baina ez dugu ezer ospatzeko, salatzeke baino”, esanda hasi zuten ekitaldia. Dantza saio baten eta antzezpen satiriko baten ostean,

herriko askotariko 12 elkarte eta eragileek banan-banan hartu zuten hitza. Udalean ez ezik, inposizioaren adibideak gizarte-ko beste hamaika alderditan ere aurkitu daitezkeela gogoratzea eta salatzea izan zuten helburu.

Segidan, udaletxeko balkoian erdian ipini duten Espainiako bandera ikurrina handi batek estali zuen bertaratutako txaloen artean, eta dantzari bik aurrekuia dantzatu zioten. Oihandi abesbatzaren doinuekin eta hainbat herritarrek prestatu eta zuzenean kantatutako bertsoekin amaitu zuten ekitaldia.



Dantzariak, eta udaletxeko balkoian Espainiako bandera kokatuta.

> IURRETA

15 milioi euroko inbertsioa geratu du Smurfitek

> AITZIBER BASAURI

Smurfit Kappa Nervione iragarri du Iurretako paper fabrikari egin behar zuen 15 milioi euroko inbertsioa geratu duela. Irlandako multinazionalak lantegi horretan paper pastaren ekoizpena %20 handitzeko asmoa zuen. Baina, ez du egingo, Espainiako Gobernuak argindar kogenerazioarako diru-laguntzak bertan behera utzi dituelako.

Smurfitek dio oso eragin txarra izango duela horrek enpleguan; bai lantegian, bai hori hornitzen duen basogintzan edo industria osagarrian. Industria ministroak bultzatutako erreforma elektrikoak %22 gutxitu ditu urte hasieratik kogenerazioari emandako laguntzak.

Smurfitek dio oso eragin txarra izango duela horrek enpleguan

Horri duela astebete proposatutakoak gehitu behar zaizkio.

Iurretako lantegiko ekoizpena handitzea zen asmoa, urtean 120.000 metro kubiko egur gehiago erreta, eta prozesuak sortutako hondakina, “likore beltza”, erregai gisa baliatzea 2012an irekitako argindar kogenerazio plantan (20 milioi). Orain dena dago auzitan, laguntzarik gabe argindarra ekoiztea errentagarria ez dela kalkulatu dute-eta.

> ZALDIBAR

Parte-hartze prozesuko azken saioaren emaitza

Mugikortasunari buruzko gogoeta egin zuten saioan

> ITSASO ESTEBAN

Herriko antolamenduen berri dazketarako duela urtebete abiatutako parte-hartze prozesua biribiltzeko helburuagaz, “festa-tailerra” antolatu zuten joan zen zapatarako. Mugikortasunari buruzko gogoeta egitera gonbidatu zituzten bertaratu ziren herritarrak. Euskal Herria kalea eta udaletxe ingurua oinezkoentzako izateko dauden aukeren inguruan jardun zuten.

Hainbat ekintza egin zituzten zapatuko hitzordu horretan. Etorkizuneko Zaldibarren antolamenduan izan dezakeen lekua kontuan hartuta, psikiatrikoko

lorategia bisitatu zuten, eta udaletxe ondoko Santa Isabel kalea “oinezko bilakatzeko saio” bat egin zuten: jarleku bi ipini zituzten errepidearen erdian, autoei pasabidea galarazita, eta herritarrei eremua oinezkoentzat bihurtzeak ekarriko liekeena asteburu batez bizitzeko aukera eskaini zien ekimenak.

Ekimen horiekin amaitutzat eman zuten hiri-antolamendurako plan berria diseinatzeko parte-hartze prozesuari buruzko erakusketa. “Balorazio oso positiboa” egin du gobernu taldeak, “ekarpen asko egin dituztelako herritarrek”.

Lurpeko zaborrontzien arazoei erantzuteko aukera

Ohiko ontziak ipiniko dituzte apurtutako ordez

> I.E.

Apurtzen diren lurpeko zaborrontzien arazoa konpontzeko hartu duen erabakiari buruz azalpenak eman ditu udal gobernu taldeak, atzo komunikabideetara bidali zuen ohar batean. Lurpeko zaborrontzi bat apurtzen denean, aurrerantzean, “inertizatu eta ohiko zaborrontziak ipiniko dituztela” azaldu dute. Gobernu taldeak azaldu duenez, 1.100 euroko kostua izango du lan horrek.

Gobernu taldearen berbetan, urtean batz beste 5.000 euro gastatzen ditu udalak lurpeko zaborrontzien konponketan, eta 17.900 euro herrian dauden ontzi guztien mantentze lanetan. “Ezin dugu dirutza hori gastatu. Premia larriagoak ditugu”.

Duela aste bi, Benito Paco PPko zinegotziak mahaigaineratu zuen zaborrontzien arazoa udalbatzarrean. Iturrioz kaleko zaborrontziaren egoera “negargarria” dela salatu zuen Pacok.

> DURANGALDEA ASTEON**Ruben Garate gogoratuko dute bihar, Motxotegirako mendi martxagaz**

Ruben Garate otxandiarra orain 14 urte hil zen, espetxe zigorra Madrilen betetzen ari zen preso bat bisitatzera zihoala, auto istripu bat izan zuenean. Hori gogoratzeko eta dispersioa salatzen Motxotegi mendira igoko dira bihar, 09:30ean, plazatik irtenda. 13:30ean ekitaldia izango da, eta 15:00etan herri bazkarian batuko dira. Ekimen horrekin eta atzo arratsaldean egindako kontzentrazioarekin bat egin du Bizkaiko Sortuk.

Aukera azoka egingo dute gaur eta bihar, Elorrioren

Elorrioko Merkatarien Elkartek antolatuta askotariko produktuen Aukera azoka egingo dute, gaur eta bihar, herriko plazan egokituko duten karpan. Goizez eta arratsaldez egongo dira postuak: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Autodefentsa ikastaroa egingo dute Elorrioren

Elorrioko Udaleko Berdintasun Sailak autodefentsa ikastaroa antolatu du otsailaren 22rako, Iturri kultur etxean. Maitane Monroyk gidatuko du jardunaldia goizez eta arratsaldez: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Izena emateko epea otsailaren 20ra arte dago zabalik udal erregistroan.

Ipuin lehiaketa hasi dute Abadiñon, idazteko zaletasuna sustatzeko

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleek har dezakete lehiaketa parte Abadiñoko Udalak hasitako ipuin lehiaketan. Maiatzaren 16ra arte, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan entregatu ahalko dituzte lanak. Sari banaketa Txanporta kultur etxean egingo dute, ekainaren 20an.

> ABADIÑO**Palmiro etxebizitza promotorearen jardun bidegabea salatu du alkateak**

“Sinaturiko kontratuak bete” ditzala eskatu dio Navarro alkateak enpresa horri

> ITSASO ESTEBAN

Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak oharra bidali du komunikabideetara, Muntzaratz auzoan etxebizitza eraikitzen diharduen Palmiro promotoreak “modu irregularrean” diharduela salatzen. “Erosketan atzera egitea erabaki duten bezeroei eman zuten diruaren %80 berehala bueltatu diezaie eta sinaturiko kontratuak bete” ditzala eskatu dio alkateak Palmiro enpresari.

Eraikitzen ari diren etxebizitza horietako bat eskuratzeko erosleek sinatu zuten kontratuaren arabera, atzera eginez gero, aurreratu zituzten 35.000 euroen %20 galduko zuten. Navarrok salatu duenez, enpresak ez du konpromisoa bete, eta “erosle berriak eduki arte” ez die bezeroei zor diena bueltatu gura.

Alkateak azaldu du, hainbat aldiz gura izan duela enpresagaz kontaktuan ipini. Bere berbetan, “herritarrei sortzen dabil-

kien kalteaz jabetu daitezene. Baina berdin zaie”. Alkatearen arabera, “lotsagarria da gazteek kreditua eskuratzeko dauzkaten zailtasunekin, enpresa batzuek probetxua ateratzea”.

Gazteei etxebizitzaren lehenengo ordainketa egiteko kreditua eman bai, baina gero hipoteka ukatzen dieten zenbait banketxeren jarrera ere kritikatu du Abadiñoko alkateak. “Lotsabakoak dira horrela jokatzen duten banketxeak”.

> IZURTZA**Bizkarra zaintzeko ikastaroa otsailean eta martxoan**

Martxoaren 10era arteko astelehen guztietan emango dute doako tailerra jubilatuen etxean

> JOSEBA DERTEANO

Izurtzako jubilatuen etxean *Zaindu bizkarra* izena duen ikastaroa hasi zuten astelehenen. Otsaila amaitu arteko astelehen guztietan eta martxoaren lehenengo bietan egingo dute ikastaroa. Durangaldeko Amankomunazgoko Nagusien Dinamizazio Sailak bideratu du ikastaroa, eta doakoa da. Astelehenero 16:00etatik 17:30era izango dira eskolak.

Bertan bizkarra zaintzeko askotariko aholkuak emango ditu gaian aditua den batek: esaterako, lurrean dauden gauza pisutsuak jasotzeko zein den jarrerarik egokiena, eta zeintzuk ekidin behar diren azalduko du. Gainera, esandakoa praktikan jartzeko modua ere izango dute, eta jubilatuen etxean bertan hainbat ariketa egingo dituzte jarrera okerrak zuzendu, eta ohitura hobek hartzeko.

> GARAI**Zaldaitik Solabiskerrerako bidean lurjausia****> M.O.**

Zaldai-Solabisker auzobidean lurjausia gertatu da azkeneko denboralearen eraginez. Bidearen bi gunetan sortu dira arazoak: lurra leku bitan mugitu da eta arbola pare bat ere jausi dira. Momentu honetan auto bat pasatzeko besteko lekua dago bakarrik. Udaleko arduradunak auzobidea ikusten egon dira asteon. Iaz ere lurjausia jazo zen Goierritik herrigunera bidean, baina oraingoa ez da hainbesteko izan. Bidea konpontzeko, Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatzeko asmoa daukatela azaldu dute.

> MAÑARIA**Plan Orokorreko partaidetza prozesua positibotzat jo dute**

Ekarpenekin planerako hiru eredu landuko dituzte

> MARKEL ONAINDIA

Joan zen egunean egin zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) diseinatzeko azkeneko tailer parte-hartzailea. Endika Jaio alkateak (Bildu) balantze baikorra egin du prozesuaren inguruan, eta 25 lagunen bueltan batu direla esan du. Tailerretan sortutako ideia eta proposamenekin planerako hiru eredu landuko ditu talde eragileak, eta uda aurretik, erreferendumean, ereduak bat

aukeratuko dute herritarrek. Hori izango da herria hurrengo urteetan garatzeko plana.

Diagnostikoaren eta lurren azterketaren ostean, egunean, partaide bakoitzak proposamen zehatza aurkeztu zuen. Jaiok azaldu du Lurralde Zati Planak asko mugatu duela. Esaterako, 80 eta 100 etxe artean eraikitzea aurreikusi dute. Hori bai, ahalik eta lur gutxien erabiltzeko helburuz, familia bakarrekoak barik, etxe blokeak izango dira.



Joan zen egunean egindako tailerretan, herritarrek hausnartzen.

artekalea 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



hitz
liburudenda

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

▶ Berbaz

Jon Sobrino | Jesuita eta askapenaren teologiaren bultzatzailea | Bartzelona, 1938

“Ez dakit noren golari buruz berba gehiago egiten da 800 milioi pertsonen gosez baino”

Martitzenean Durangora etorri da Jon Sobrino. San Jose Jesuitak ikastetxean berbaldia eman du, ‘Errealitate gordinaren aurrean, zintzotasuna eta itxaropena’ izenburupean. Bere mundu ikuskeraz berba egiteko tarte bat hartu du hitzaldiaren aurretik.

> AMAIA UGALDE

Hiztegia zaintzea gustatzen zaio Jon Sobrino jesuita eta teologoari. Argi du El Salvadorren ezagutu dituen pertsonak pobreak barik zapalduak direla. Hildakoak berba erabili beharrean homizidioak erabiltzea egokiagoa da bere ustez. Batez ere, gizatasunari buruz egin du berba elkarrizketan.

Munduari buruzko zure ikuspegiak jardun duzu Durangon.

Durangoko jesuitek hori eskatu didate. Nik, nire ikuspegitik eta El Salvadorretik, planetako errealitatea gordin ikusten dut. Europan dagoen krisiaz eta gordintasunaz gainera, munduan 800 milioi pertsona gosez bizi dira. Horretaz ez da berba egiten ez behar bezala, ez behar beste. Ez dakit noren gol bati buruz berba gehiago egiten da, 800 milioi pertsonen gosez baino. Errealitate hori hor dago, eta horri begiratu behar genioke norbere baitatik irtenda, zintzotasunez eta itxaropenez. Itxaropena duen jende asko ezagutu dut nik. Begoña Sopelana iurretarra izan zen horietako bat. Azken batean kontua da sinestea ongiak gaizkiak baino indar handiagoa duela. Eta maitatzeak planeta hau humanizatzen duela. Maitasunarekin ez da sekula galtzen. Jendea hil dute hori pentsatzeagatik, baina hori horrela izanda ere, pertsona horiek ez dute galdu.

Behin baino gehiagotan, zure lanek eta iritziek zentsura jaso izan dute Vatikanotik. Zelan bizi izan duzu hori?

Vatikanotik lehenengo gutuna 1976an jaso nuen, eta ordutik hona hainbat jaso ditut, gauza arriskutsuak edo ezegokiak idazten nituela, eta aldatu nitza la eskatzeko. Azkena, 2007an jaso nuen, eta ordutik hona ez dut presiorik igarri. Egia esan, ni horrek sekula ez nau asko ukitu. Erratu banaiz, erratu naiz, baina ez nuen ikusten errakuntza handirik zegoenik. Dena dela, ni gehiago arduratzen nau El Salvadorreko jendearen iritziak Vatikanotik eta aita santuek esaten dutenak baino. Askok sufritzen duen jendeak nigan konfiantza galtzeak arduratzen nau, “hortik ez zoaz ondo, zu inondik inora ez zara gutarra” pentsa-

tzeak. Horrela bada, orduan porrot egin dugu.

Urte asko dira El Salvadorra heldu zinenetik.

1957an heldu nintzen lehenengo aldiz, jesuita formaziorako. Kuban izan nintzen gero, AEBetan eta Alemanian ere izan nintzen ikasten, eta 1974tik El Salvadorren nago lanean. 1974an ikusten hasi nintzen hangoek niri zer edo zer zeukatela esateko, Deustuko Unibertsitateak eta Indautxuko ikastetxeak eman ez zidaten zerbait. Horrek nire ikuspegia aldatu zuen. Orduan hasi nintzen ulertzen joan nintzen lehenengo aldian txirotzat nituen horiek zapalduak zirela. Zeinek zapalduak? Dirua zuen jendeak, bertako herrikoek, inguruko herrietakoek eta egiturazkoagoa zen AEBtako botere iturriek. 1970eko hamarkadan, zapalkuntza horretatik burua altxatzen hasi zirenean, erreprezioarekin erantzun zieten.

Hamabi urte iraun zuen gerra etorri zen geroago, eta aurrean 25 urte beteko dira Ignacio Ellakuria eta zazpi kide hil zituztela. Askok aldatu dira gauzak harrezkero?

1992an bake akordioak sinatu zirenetik, hildakoen kopurua ez da aldatu. Ez zait gustatzen *hildakoak* hitza erabiltzea, dagoe-

“

El Salvadorren konturatu nintzen hangoek niri zer edo zer zeukatela esateko, eskolek esan ez zidaten zerbait”

neko hitz horrek ez duelako ezer balio; homizidioak dira, homizidiaz hildako pertsonak. *Mara* eta gaizkile-taldearen arteko borroka daude, narkotrafikoak eragindakoak. El Salvador, Honduras, Guatemala eta Mexiko bidea dira, azken batean, AEB-etara heltzeko. Urtean 2.000-3.000 homizidio izaten dira. Pobrezia maila ere ez da aldatu. Herria abandonatzen duten salvadortarren kopurua igo da; AEB-etan ia 3 milioi daude. Eliza katolikoaren bizitza ere aldatu da,



erlijio arloa oso *light* dago orain. Badaude ordea hazi moduan lan egiten duten pertsonak eta komunitateak, eta horiek itxaropena ematen dute. Zeren itxaropena? Nire alderdiak irabaziko duelako ustea? Zerura joango garelako ustea? Ez, bizitzak zentzua daukalako itxaropena.

Askatasunaren teologia ardatz hartuta, komunitate eta hazi horiek indartzea izan da zuen lana?

Nik gutxitan hitz egiten dut askatasunaren teologiari buruz. Gure papera ez zen izan inor salbatzera joatea, babestera baizik, eta hori horrela egin izanagatik zazpi jesuita hildako edukitzea ez da txorakeria. Laguntzera joan ginen, eta kontua da lagunduak sentitu garela. Bizitzaren xumetasun horrekin lagunduak. Jainkoa egongo den ala ez, hori bakoitzaren sinesmenen arabera da.

“

Atzera begiratuta ondo bizi izan naizela esan dezaket; gizatasuna presente egon da nire bizitzan”

Baina egonez gero, pobreengan dago; hori da ebanjelioaren oinarrizko intuizioa. Nazaretoko Jesusen moduko pertsonetan dago. Nik, nire adinetik atzera begiratuta, pentsatzen dut ondo bizi izan naizela. Ondo pasatu dut? Hori beste gauza bat da. Ondo bizi izan naiz. Gizatasuna presente egon da nire bizitzan, zortea izan dut. Eta orain nora goazen? Ez dakit. Baina badakit horrela jarraitzeak planeta humanizatuko duela. Beste modu

batera esanda, horrek ez badu planeta humanizatzen, ez dago konponbiderik. Ibiliko dira zeinek Txapeldunen Liga irabazi, zeinek Munduko Txapelketa...

Zelan sumatzen duzu Frantzisko aita santua?

Gauzak mugitzea eragin du, eta hori nobedade handia da. Gauza zikin asko daude elizan, eta hori garbitzen saiatzen dabil. Hainbat keinu egin ditu, eliza erreformatzea gaitzagoa izango den arren. Gero, arriskua dago ikusle soil moduan geratzeko. Gauza bat gustatzen zaigunean ikusi behar dugu guk zelan bultzatu dezakegun hori. Bere esanak aipatuta edo ez. Lampedusako gertakariaren harira, adibidez, birritan joan da bertara, eta argi egin du berba. Bada, barkuren bat hondoratzen denean, goazen parlamentura “hau horrela ezin da izan” esatera. Ekintzarako jarri behar da.



“Bigarren eskuko dendek aspalditik funtzionatzen dute European”

Umetik Umera dendan (Durango) bigarren eskuko artikulua saltzen ditu Ander Garmendia Larreak

>AMAIA UGALDE

Umeak nagusitu ahala, ganbarara joaten dira ume-kotxeak, sehaskak, autoetarako aulkiak eta hainbat tresna. Familiako edo lagunarteko beste ume bati ere heldu ahal zaizkio “herentzian”. Eta, bestela, zergatik ez saldu? Bigarren eskuko hainbat artikulua, ia berri-berri daudenak, saltzen ditu Umetik Umera dendan Ander Garmendia Larrea otzandiarak. Duela hilabete zabaldu zuen denda.

Jendeak erabilitako gauzak ekartzen dizkizu eta zuk saldu. Zelakoa da funtzionamendua? Adibidez, pertsona batek, semea edo alaba nagusitu, eta ume-kotxea behar ez badu, hona ekarri dezake. Nik tasatu egiten dut, eta gutxi gorabeherako prezio bat jartzen diot, ikusita zenbat urte dituen eta nolako egoeran dagoen. Gero, bion artean adosten dugu prezioa, eta salgai jartzen dut. Nik ez dut ezer erosten; salduz gero, portzentaje bat erosten dut. Bi hilabetez edukitzen ditut salgai artikulua, eta ez baditut saltzen, bueltatu egiten ditut.

Kontratu bat sinatzen duzue.

Bai, kontratu txiki bat da, eta nigana jotzen dutenek konpro-

misoa hartzen dute bi hilabetez ez dutela beste bideren batetik artikulua eman edo salduko. Lehenengo hilabetean ez bada saltzen, prezioa %7 bajatu daitekeela ere jartzen du kontratuak.

Maukarik aurkitu daiteke?

Bai. Bi urte pasatzerakoan, balioa gutxi gorabehera erdira bajatzen da. 2012an erositako ume-kotxe batek 1.050 euro balio bazuen, bi urtera 520 euro balio dezake.

Zelako artikulua ekarri daitezke dendara?

Umeentzako gauzak badira, dena ekarri daiteke. Arropa apur bat konplikatua da hartzeko: oso-oso ondo ez badago, ez dut hartzen. Badauzkat batzuk etiketa eta guzti, inoiz erabili bakoak, eta amamak eskuz egindakoak ere badauzkat. Nahiko berri dagoena hartuko dut bakarrik.

Sehaskak, arropa... eskurik esku ibiltzen dira sarri, lagun artean eta familian.

Bai, eta horrela egin ahal bada, ondo dago, baina, bestela, eta gauzak dauden moduan, jendeak ez dauka dirurik, eta etxean izaten dituz horrelako gauzak, trastelekuan, inolako erabilpenik eman barik.

Ahoz ahokoak asko egingo du. Bai. Ni futbolekin nabil Durango, eta nire taldekide izandako bati kontatu nion asmoa. Hark traste asko zituela-eta, gauzak ekarri zizkidan. Bere koinatuari kontatu zion, eta hark ere gauza asko zituen. Gero batzuei bigarren eskuko izateak atzera eginarazten die. Galdezka etorri izan zaizkit, “hori da mauka!” esanez. Eta nik erantzun: “Bai, ia ez dago erabilita”. Orduan, harritu egiten dira. Batzuei ia ez zaie igartzen erabilita daudela, baina bigarren eskukoak direla jakitean, pertsona batzuek pentsatzen dute akatsen bat edukiko dutela edo asko erabilitakoak direla. Sarri ez da horrela izaten. Bigarren eskuko izanda, akats txikiak eduki ditzakete, baina beno, jatorrizko prezioaren %30 ordaintzen zabilta!

Agian, hemen ez dago errotuta bigarren eskuko gauzak erosteko ohitura.

Ez. Ni Erasmus beka dela-eta, kanpoan ibili nintzen, eta Her-

“
2012an erositako ume-kotxe batek 1.050 euro balio bazuen, bi urtera 520 euro balio dezake”

behereetako eta Alemaniako lagunek esaten zidaten han aspaldian daudela zabaldua horrelako gauzak. Hemen oraindik ez dago zabaldua, nahiz eta Europa mailan horrelako ekimenak aspalditik egiten diren. Orain, hemen ere, krisiagaz alternatibak bilatu behar dira.

Denda bete-bete egiteko arriskua dauka horrek.

Kasu batzuetan, artikulo zaharagoekin, adibidez, Internet bidez argazkiak bidaltzen dizkizate, eta nik blogean eta facebookean salgai ipintzen ditut. Baten bat galdezka badator, tableta bidez erakusten diot produktu hori, nahiz eta fisikoki hemen ez eduki. Horrez gainera, jendeak zerbaitengatik galdetu eta ez badaukat, telefonoa eskatu eta zerrenda bat egiten dut. Kotxetarako aulkiak, adibidez, auto berrietan lotura berezia behar izaten dute, eta horren eske bost pertsona etorri dira. Baten batek ekartzen badu, zerrendan lehenengoari deitzen diot. Gauza asko sartzerakoan jada saldu ta daude.



Umetik Umera

Haurrentzat behar duzun guztia

Juan Mari Altuna, 18
48200 - DURANGO
657 656 262 - 944 657 435
umetikumera@gmail.com
umetikumera.blogspot.com.es

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar



Naturala

Bertsio ofizialak dio Arkaitz Bellonen heriotza naturala izan dela, eta horrela jaso dute bertsio ofiziala jasotze-
 ra ohituta dauden komuni-
 kabideek. Nire ustez, ez da
 batere naturala pertsona
 bat, preso badago ere, bere
 familia dagoen tokitik 1.000
 kilometrorra urruntzea. Ho-
 rrek, presoaren familiari eta
 lagunei zigor gehigarri bat
 ezartzea besterik ez du bila-
 tzen. Era berean, ez da batere
 naturala 13 urteko kartzela
 zigorra ezartzea autobus bat
 erretzeagatik; are gutxiago,
 kondena bere osotasunean
 betetzeko hilabete gutxi ba-
 tzuk geratzen direnean per-
 tsona hori lehenengo gra-
 duan mantentzea, alegia,
 preso batentzako egoera go-
 gorrenean.

Euskal preso politikoe-
 kin gertatzen ari dena Europa
 mailan ematen den giza esku-
 bideen urraketa larrieneta-
 koa da. Urte askoan ehunka
 herritar bere ideologiaren-
 tik mehatxatuak eta bizkar-
 tzainekin egon behar izana
 giza eskubideen urraketa
 zela salatu zuen euskal gizar-
 teak, giza eskubideen alda-
 rrikapenak pertsona guztien-
 tzako izan behar direlako.
 Aprobetxa ditzagun azken
 urtean herriz herri egonda-
 ko olatuak, Bilbon tsunami
 bihurtu zirenak, egoera al-
 datzeko.

Giza eskubideen aldarri-
 kapena ezin da sailkatu. Ezin
 da onen eta txarren artean
 ezberdintasunik egin, eta
 mendekuari zilegitasunik
 eman. Arkaitz Bellonen seni-
 tartekoak eta lagunek gaur
 egun pasatzen ari diren une
 latzak berriro ere inork pai-
 ratu ez ditzan, aski da, kalean
 eta erakundeetan aldarrika-
 tzeko garaia da.

Gutuna

Astebete joan da Arkaitz Bellon Blanco, Elorrixoko semea, Puerto de Santa Mariatik hilik atera zutenetik. Arkaitzen gertukoek, asteon, garbi utzi izan duten bezala, ez da izan "edozeini gerta dakiokkeen zerbait", euskal jendarteak hainbestetan salatu duen gartzela poli-
 tika kriminal baten ondorio zuzena baino; beste era batera esanda, Arkaitz hil egin dute. Espetxe politika hau diseinatu, kudeatu eta gaur egunean, egoerak egoera, indarrean mantentzen dutenak dira Arkaitzi gertatutakoaren erantzuleak.

Aipatu dira Arkaitzen epaiketaren esperpentua (epaileetako batek lo hartzen zuen bitartean fiskala frogazuzenik ez zela aitortzen) kondanaren neurrigabetasuna, kondena non bete izan duen (Andaluziako presondegiaren gehienbat), jasan dituen jipoi eta umiliazioak, torturak, isolamendu moduluetan bakarrik emandako urteak, gurasoek bisitatzean jasandako istripu larria, eta abar nazkagarri luze bat. Froga gehiago behar al dira Arkaitz berez ez dela hil esateko?


Aste honetan, Arkaitzen irudia eta izana geroan ere iraunarazteko balioko duten gauza asko esan eta idatzi dira, nahiz eta izan den, mina errespetatzeko gai izan ez den miserablerik ere. Arkaitz maite genuela eta guretzat eredu dela esatea ere delitu bihurtu nahi izan dute, baina ez dugu zalantzarik Arkaitzek geroan ere iparra era-
 kutsiko digula. Arkaitzen bertuteak zerrendatzeak luze joko luke, baina bere koherentzia nabarmendu nahi genuke beste guztiaren

gainetik, bere esanaren eta izanaren arteko uztartze erabatekoa. Indartsua eta duina zen Arkaitz, kanpoan bezala, gartzelan ere, ez zuen ez zegokionik eskatuko, baina justua zenagatik bihotz eta ari-
 ma borrokatuko zuen. Gazte sartu zuten espetxera eta belaunaldi gazteagoekin harremana eusten eta estutzen jakin izan du gero ere. Bisitan ere joan zaizkio askotan herriko gazteak eta azken agurraren unean ere, ikusi ahal izan dugu urteek eta distantziak ez dutela lortu Arkaitz gazte eta ez hain gazteengandik aldentzea.

Aukera hau probestu nahi dugu Arkaitzi merezi zuen agurra behar bezala emateko gerturatu diren guztiei eskerrak emateko. Itze-
 la izan da herri honek erakutsi duen indarra, errespetua eta gaitasuna. Eredugarria izan da Euskal Herri osoarentzat, eta Arkaitzekin harro gauden moduan, harro eta eskerturik gaude azken agurrerako lanean aritu zareten denekin eta baita bertara etorri zareten guztio-
 kin ere. Bihotza, burua zein eskuak eskaini dituzuenekin.

Arkaitzi gertatu zaionak ez du atzera bueltarik, baina balio izan beza, bederen, ostera gerta ez daiten. Izan dadila gartzelan edo etxe-
 tik urrun hiltzen den azkena. Aurreko asteburuan, ikusi dugu zein den bidea. Arkaitzen agurrean ikusi dugu badela herri bat, elkar hartuta negar eta barre egiten dakien herri bat, denok batuta bidea egin genezakeela. Eta bidean, borrokan, aurkitzen bagara, bidea gu-
 rea bada, garaipena ere gurea izango da!

Josu Herrero Arriolabengoa
 Elorrioko Ezker Abertzalearen izenean



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215

astekaria@anboto.org

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
 Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta
 ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO
 Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa

anboto

komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
 48215-lurreta
 (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa:
 94 623 25 23
 Publizitatea:
 94 621 79 02
 publi@anboto.org

2014ko otsailaren 14a,
 12. urtea - 533. alea

Zuzendaria:

Jones Guenetxea.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso,

Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Joseba Derteano.

Markel Onaindia, Amaia Ugalde

eta Maialen Zuazubiskar.

Maketazioa: Eider Alberdi.

Zuzentzailea:

Jon Ander Urkiaga.

Argazkilariak: Kepa Aginako,

Zalaoa Fuertes.

Leo Simoes | lurreta, 46 urte | Argazkilaria

“Marokora egindako bidaiak bultzatu dute proiektu hau”

‘Euri eta eguzki egunak’ argazki erakusketa ekarri du Leo Simoes argazkilaria Durangoko Museora


> ITSASO ESTEBAN

Hego Ameriketara zaude. Zertan zabilta bertan? Argazkiak egiteko ere astirik atera duzu? Hamar hilabete daramatzat Txilen, argazkigintzaren sorkuntza prozesuari buruzko ikastaroak eskaintzen. *Begiradari buruz* izena du tailerrak, eta Txileko hamar eskualdetan eskaini dit, dagoeneko. Herrialde hau ezagutzeko aukera ederra da. Santiago hegoaldean, Temuco, nago bizitzen, eta bertatik, aldi berean beste bi proiektu pertsonal garatzen ere badihardut: Maputxe indigenei buruzko *Madre tierra* argazki proiektua eta *Somos* dokumentala.

Zelan sortu zitzaizun ‘Euri eta eguzki egunak’ erakusketa Durangon ipintzeko aukera? BBK Fundazioak antolatu zuen duela urte batzuk erakusketa, eta han-hemen ikusgai izan da harrezkero. Oraingoan, Durangoko Museoak aukeratu du bere programazioan barne hartzeko.

Bidaietan egindako argazkiak dira erakusketa honetakoak. Sorkuntzari begira, bereziki emankorrak zaizkizu bidaiak? Ez dut uste bidaiatzeak berez sorkuntza sustatzen duenik. Argazkigintza baino askoz inportanteagoa den beste gauza batengatik bidaiatzen dut: bizi esperientziagatik.

Zelako jendea eta lekuak dira erakusketako argazkietakoak? Noiz egindako argazkiak dira? Bidaia bat beti da zoazen lekua zein zeure burua ezagutzeko aitzakia bikaina. Kasu honetan, Marokora egindako bidaiak bultzatu dute argazki proiektu hau; herrialde horretara 2005. eta 2009. urteen artean egindako bidaiak. Motxilan 8.000 kilometro baino gehiago metatu ditut, bertakoen etxeetan ostatu hartu dit, mendietan zein Atlas Ertainean zehar ibilaldi luzeak egin ditut, Agadir, Rabat, Lalla Takerkoust, Tetuan, Taza, Tanger eta Tiznit ezagutu ditut, adibidez.



Rous Boiser.

Euri eta eguzki egunak erakusketak bidaia hori islatzen du, eta nire esperientzia pertsonala gaur egungo Marokon ere bai.

Zaila egin zaizu erakusketarako argazkien aukera egitea? Argazkiak egitea bera baino, argazkigintza gehiago da aukeraketa lana, hau da, edizio lana. Ehunka argazki egin eta gero, irizpide narratiboen arabera egiten dut hautaketa. Erretratuak, paisaia naturala eta hiritarra aukeratu ditut oraingoan.

Gehiago lantzen duzu zuri-beltza kolorea baino? Zuri-beltzaren tradizioz nator, eta nire azken urteetako lanetan gehiago landu dut erregistro hori. Edozelan ere, gaur egun kolo-

“*Bidaia bat beti da zoazen lekua zein zeure burua ezagutzeko aukera*”

rea lantzen ere badihardut, eta uste dut litekeena dela aurretik hortik jotzea gehiago.

Erretratuak dira gehienak, ezta? Bereziki gustoko dituzu? Argazki lanari artikulazio narratiboa ematen lagun diezadaketan erregistro guztiak ditut gogoko. Horietariko bat da niretzako erretratuak.

Argazkilaria ez ezik, Durangoko Begira Photo jaialdiaren antolatzailea ere bazara.

Kinua argazki elkarteak antolatzen du jaialdia, eta koordinazio orokorreko lanak egiten ditut nik. Aurten, ekainaren 10etik 29ra arte ospatuko dugu jaialdiaren laugarren edizioa. Egile euskaldun asko izango dugu aurten, eta nazioartekoak ere bai, noski. Estatuko argazkigintzan oso ezaguna den Jesus Micó argazkilaria, kritikari eta irakaslea ere gonbidatuko dugu, esaterako, Begirara. *La autoría personal, claves para mejorar un proyecto personal de autor* izeneko tailerra gidatuko du Micó. Nobedade bezala, umeei zuzenduriko tailer bat eskainiko dugula ere aurreratu dezakegu.

Ikuslea bere kontakizun propioa garatzera gonbidatzen dute irudiek

“Jarrera aktibodun ikuslea” eskatzen du Leo Simoesen argazki erakusketak



“Kanpoko mundua ezagutzeko prest egoteak norberaren burua aurkitzea dakar aldi berean”. Hori dio Leo Simoesen *Euri eta eguzki egunak* erakusketaren aurkezpen orrirako Nerea Ubieto argazkilaria idatziriko testuak.

Ubietok azpimarratzen duenez, Leo Simoes iurretarrak Marokora lau urtean egindako bidaietako argazkiek jarrera aktibodun ikuslea eskatzen dute. Izan ere, erakusketara bertaraten den ikusleak bere kontakizun propioa garatu dezala gura luke Simoesek.

Maroko hegoaldeko Tiznit herrian, aldameneko argazkiko hiru anaia horiekin bizi izan zen egun batzuetan Leo Simoes argazkilaria. Anaia horienetan bezala, erretratuetan agertzen diren pertsonen keinuetan ere “geure burua ikusten dugu, eta ulertzen dugu estalki kulturalaren atzean gure beldur eta kezka berberak daudela”.

Konposizio orekatuko zuri-beltzeko argazkiek “irrealtasun eta misterio kutsua” dutela dio Ubietok idatzian. Bere hitzetan, “argazkien konposizioak begirada zerura zuzentzera bideratzen du sarri ikuslea”, eta, horrela erraza da “naturaren handitasunari edo etorkizunaren ziurgabetasunari buruzko paradigma erromantikokoan barneratzea”.

Simoesen ibilbide oparoa 1988an hasi zen Leo Simoes argazkiak egiten. Film laburrak ere sortu ditu, telebistan lan egin du, eta irakasle lanetan ere badihardu, gaur egun. Gainera, Granadako El Trapiche Ediciones taldeko editorea ere bada.

Azken hiru urteetan, Durangaldera bueltatuta, besteak beste, Durangoko Begira Photo argazkigintzari buruzko jaialdia antolatzen dihardu: ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak eta erakusketak atontzen ditu.

> ANTZERKIA

Ibaizabaleko Haur Hezkuntzako ikasleek sortu eta antzezturiko bost obra, Plateruenean

Durangoko Ibaizabal ikastolan Haur Hezkuntzako 25 ikasleek sorturiko bost antzezlan Durangoko Plateruenean izango dira ikusgai, datorren astean; antzezlan bat eskainiko dute egun bakoitzean

> **ITSASO ESTEBAN**

Durangoko Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako lehenengo mailako 25 ikasleek idatzi, prestatu eta antzezturiko bost lan eskainiko dituzte, datorren astean, Durangoko Plateruenean. Berbaro elkarrekin umeei zuzenduta kudeatzen duen Olgetan proiektuaren barruan eskainiko dituzte bost emanaldiak. Astelehenetik barikura, bi eta bost urte arteko ikusleentzat eta euren familientzat pentsatutako antzezlan bana eskainiko dute, 17:30ean hasita.

Mireia Delgado irakasleak azaldu duenez, lehenengo, gelan prestatutako ikuskizunak beste ikastola batzuetan eskaintzen hasi ziren. Iaz egin zuten lehenengoz, emanaldi zabala, Plateruenean. "Hain lan handia eginda, ikuskizun osoak sortu dituztenez, herrira zabaltzeko bide egokia dela uste dugu".

Bidaia -bat ilargirainokoa- misteriozko istorioak zein naturari buruzkoak, jolasak... As-

kotariko gaiei buruzkoak dira Plateruenean eskainiko dituzten bost ikuskizunak. *Ilargiaren zati bat*, *Antzinako taupadak*, *Jolastokitik espaziora*, *Irakurritz amestuz eta Urtaroei adi*, *txantxangorria gidari!* izenburukoak. "Bihotzetan sartu ahal izateko, bihotzetan sorturikoak behar dute izan istorioek", dio

Delgado irakasleak. "Emozioetan, detaileetan, gauza txikietan oinarriturikoak" dira lanok.

Haur Hezkuntzako ikasketetan diziplinarteko gaia dute literaturari eta antzerkiari loturikoa; hainbat ikasgaitan lantzen dute proiektua, eta datorren astean Plateruenean eskainiko dituzten ikuskizunak prestatzea

da proiektu horren zatietako bat. "Hezitzaile profila lantzeko, oso inportantea da errealak diren egoerak planteatzea: benetak plaza bat eskainita, testuinguru errealean dihardute ikasleek. Bestalde, taldean egindako lana da, erronka bat daukate, eta ikuskizun osoa euren esku dago", dio Delgadok.



Ikastolan eskaini izan dituzte beste urte batzuetan emanaldiak.

> **ARGAZKIGINTZA**

Antonio Villanuevaren argazkiak Berrizen

Bihartik martxoaren 6ra arte, Berrizko Kultur Etxean izango da Villanueva zaldibartarraren lana

> **I.E.**

lazio urte amaieran Zaldibartarren erakutsi zuen *Hain hurbil*, *hain urrun* argazki bilduma Berrizen ipiniko du Antonio Villanueva zaldibartarrak, bihartik aurrera, ikusgai.

Hain hurbil, *hain urrun* izena du bildumak, eta Burgosko Cerezo de Río Tirón herrian egindako hainbat irudi biltzen ditu. Herri horretako jendearen erretratuak, kaleak eta txokoak, zein landa inguruak dira Berrizko Kultur Etxean ikusgai izango direnak.

Bihar zabalduko dute erakusketa, eta martxoaren 6ra arte ikusi ahalgo dira lanak. Ondoren, Durangora eramango dute bilduma: Ezkurdiko udal aretoan zabalduko dute erakusketa, apirillean.

Burgosko Cerezo del Río Tirón herrian egindako hainbat irudi biltzen ditu Villanuevaren erakusketak

> **EKIMENA**

'Pasioaren ertzak' ekimena ipiniko du martxan Zornotzako liburutegiak

'Pasioa' berba gaitzat hartuko dute ekimenean

> **I.E.**

Zornotzako liburutegiak antolatutako ekimena da *Pasioaren ertzak* izenekoa. *Pasioa* kontzeptua gaitzat hartuta, eta sorkuntzaren hiru arlori begira, beste horrenbeste kultur proposamen dakartza ekimenak.

Batetik, argazkilaritza eta literaturaren arteko harremana landuko dute ikastaro batean. Parte hartzeko otsailaren 26ra arte eman daiteke izena. Bestetik, *pasioa* idazgaitzat hartuta, literatura lehiaketa ere antolatuko

dute. Lehiaketa horretara bidalitako testuek ezingo dute 150 berba baino luzeagoak izan, eta martxoaren 1etik maiatzaren 31ra arteko epea zabalduko dute lanak bidaltzeko. Bukatzeko, berbak eta irudiak uztartuta, literatura lehiaketako testuekin eta argazkilaritza tailerreko emaitzarekin erakusketa ipiniko dute, Zelaieta Zentroan.

Informazio gehiago, www.liburutegiak.blog.euskadi.net/amorebieta-etxano helbidean eskuratu daiteke.

GEURE DURANGALDEA

ARANTZA
ARRAZOLA
ETA MAIDER
LARRAÑAGA



San Agustín

Déjà vu?

Kuriosoa da gero bizitza. Kuriosoa nola errepikatzen diren egoerak, denbora kiribilduko balitz bezala; *déjà vu* esaten omen zaio horri.

Sentsazio horixe sortu ziztaizun zapatuan, *El intérprete*ren aurretik Asier Etxeandiarrekin kafe baten bueltan. Etxeandiarrekin kontatu zizun 2012an, telebistan eta zinemain hainbat lan handi egin eta gero, urtea goia jota bukatu zuela, *La averiaren* gizonetako aktore onenaren Max saria eskuratuta, eta bat-batean, maldan behera amildu izan balitz bezala, telefonoa mututu zitzaioela, eta agendan egun hutsek gorri gaina hartu zietela.

Etsita, egunero jateko bizioa hartuta, formatu txikiko zerbait prestatzeko ekin zion, pare bat lagun musikari endredatu, eta ondoen ezagutzen zuen istorioa kontatzeko: berea. *El intérprete*. Kantuak lagun, bidaia emozional eta katarsi kolektiboa, antzoki guztietako sarrerak agortu dituen.

Hori entzutean sentitu genuen *déjà vu*. Zortzi aste lehenago, berbaldi berbera, antzeko kafea, eta aktore berdintsua. Hura Alberto San Juan zen, abenduan etorri zen *Auto-retrato de un joven capitalista español*ekin. Lehenengo pertsonan kontatu zuen, urtetan filmetako galana izan eta gero, Animalario konpainia sortu eta goia jo ondoren, aldapan behera amildu zela. Produktoreak berekin ahaztu ziren. Formatu txikiko zerbait egitea pentsatu zuen. Bere bizipenen bidez Espainiako politikaren erreposo aparta sortuta.

Agenda hutsaren aurrean, eta krisi ekonomiko eta existentzialean murgilduta, berriro gora eramantzen dituen lanak sortu dituzte. Basamortuko ibilbideak on egin die biei, bejondeiela! Eta mila esker lan biribil horientatik.

Imaginat
Planeta KA

Otsailaren 16an
12:00 - 18:00 - 18:45 (3 pase)

San Agustín
KULTUR
GUNEA

PLATERUENA | Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

OTSAILAK 14 - 21:30ean DOAN
DURANG(H)OTS JAM SESSION
MUSIKA KONTZERTUA

OTSAILAK 15 - 22:30ean 8/10 euro
AUDIENCE + LE NOISE
MUSIKA KONTZERTUA

BIZKAIAN
ehne
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu
gura badozu
deitu!

946 217 902

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK -
ALTZARIAK - DEKORAZIOA



**Zuk nahi duzun etxea
egiten lagunduko dizugu.**

www.epocasukaldeak.com



Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com

Madalenoste, 7
48200 Durango



> MUSIKA

“Kontzertu idealaren” bilaketan murgilduta, ‘Big Affair’ aurkeztera dator Audience Plateruenera

Bihar, otsailaren 15ean, Durangoko Plateruenean kontzertua eskainiko du Audience talde gernikarrak



Abuztuan AEBetako WaterMusic estudioan grabatu zuen Audiencek ‘Big Affair’ azken lana.

> ITSASO ESTEBAN

Urte bete izan zuten iazkoa Audience taldeko gernikarrek. *Big Affair* izeneko diskoa plaza-ratu zuten urte amaieran. Abuztuan, AEBetako WaterMusic Recorders estudioan grabatu eta nahastu zuten lana, John Agnello teknikariaren laguntzagaz. Orain, kanta berriak zuzenean aurkezten dihardute han-hemen, eta helburu horregaz etorriko dira, bihar, Durangora.

Datozen hilabeteak horretan eman gura dituzte, Hannot Mintegia taldekideak azaldu duenez. Kontzerturik kontzertu. “Gure gustuko erritmoan gabiltza”, dio Mintegiak. “Beti

jotzeko prest, baina bestelako proiektuetan ere sartuta”. Esaterako, bertsioen disko batean ere kolaboratu berri dute.

Le Noise talde bilbotarrak zabalduko du Durangoko Plateruenean biharko musika emanaldia

Plateruenean hainbat aldiz jo du Audiencek lehenago ere. Azkenengoz, Gaizka eta Ager Insunza taldekideak izan ziren Kantuaren Kantoia zikloan. “In-

gurukoetatik gehien gustatzen zaidan aretoa da Plateruena”, dio Mintegia gitarristak. “Bertan jotzea oso gozagarria da, eta oso gogotsu gaude bihar Durangora joateko”.

Le Noise talde bilbotarrak zabalduko du Plateruenean biharko emanaldia. Mintegia Audienceko gitarristak azpimarratu duenez, “alde instrumentala asko lantzen duen taldea da Le Noise, eta kontzertu bizia izango da biharkoa, seguru”.

Disko berriak kaleratzen jarraitu arren, aurretiko lana oso presente daukan taldea da Audience. Mintegiaren arabera, esaterako, biharkoa disko be-

rriaren aurkezpena izango bada ere, ez dituzte kantu berriak bakarrik joko. “Gure ibilbideari erreposoa egingo diogu; joko ditugun kanta gehienak azken bi diskoetakoak izango diren arren, egingo dizkiogu keinuak *Amerikanuak* lanari, eta pare bat bertsio ere joko ditugu”.

Euren ustez “kontzertu ideal litzatekeena” sortzen saiatzen dabilta Audience taldeko kideak: “Abestien ordena onena eta kantuen arteko loturak ondoen zelan egin” bilatzen. Hannot Mintegiaren berbetan, “asko disfrutatzen dugu horretan ere, eta azken aldian gehiago ibili garenez estudioko lanean,

topera disfrutatuko ditugu datozen hilabeteetako emanaldiak”.

Urteko diskorik onenen zerrendan aipatu dute musikan espezializaturiko hainbat komunikabidek Audience taldearen *Big Affair*. “Jendeak diskoari egin dion harreragaz oso pozik” daude gernikarrak. *Big Affair* taldearen inoizko “diskorik osoena” dela pozik entzun dute taldekideek. Diskoak egin ahala, zuzenekoetan ere hobeto funtzionatzen duten kantuak egiten dituztela sentitzen dute.

Audience: “Bertan jotzea oso gozagarria da, eta oso gogotsu gaude Durangoko Plateruenera joateko”

Gaizka Insunza taldekideak Capsula taldeagaz ezagututako estudioan grabatu zuten, udan, *Big Affair*. Euskal Herritik kanpo grabatzera joatea “konplikatu” izan zela azpimarratu du Mintegiak. “Bakoitzak gure lana daukagu, ez gara musikatik bizi, eta oso zaila da bidaiarako datak zehaztu eta taldekide guztien egutegiak koordinatu ahal izatea. Grabatzera AEBetara joan ahal izatea opari bat izan da guretzat; denbora luzez izan gara taldekide, eta esperientzia oso polita izan da”.

Kantak eta diskoak sortzen zein zuzenekoetan, hau da, “gauza berriak egiten”, asko disfrutatzen dutela dio Hannot Mintegiak. *Amerikanuak*ekin urratu zuten bidean, datorren urtean lantalde beragaz zesta-puntari buruzko *Jai Alai Blues* filmaren soinu banda egitea da Audience taldearen asmoa.

> SARIA

Espainiako Antzerki Amateurraren Konfederazioaren saria Banarteri

‘Guernica 1913’ obratik eman diote Banarteri antzerki garaikidearen saria



Urrian, Gernikako Lizeo antzokian estreinatu zuten ‘Guernica 1913’ lana.

> I.E.

Banarte Abadiñoako taldearen *Guernica 1913* obrari eman dio Espainiako Antzerki Amateurraren Konfederazioak sari nagusietako bat: Antzerki Garaikidearen saria. Urtarrileko batzar orokorrean, aho batez erabaki zuten saria Banarteren lanari ematea, eta 2014ko azaroan Granadan egingo duten jaialdian banatuko dituzte sariak.

Antzezlan garaikideen atalean jaso du saria Banartek, baina klasikoaren, dantzaren, musikaren eta umeen antzerkiaren arloan ere banatu dituzte sariak. Antzerki tailerrik onenari ere egin diote goraipamenik.

Benetako gertakarietan oinarrituriko obra da *Guernica 1913*, eta, urrian, Gernikako Li-

zeo antzokian estreinatu zuten. Gernikazarra Historia Taldeko Txato Etxanizek jasotako informazioan oinarriturik dago obra, eta, bere aholkularitzagaz, Rafa Herce Banarte taldeko kideak idatzi zuten, eta Sardo Irisarri eibartarrak jardun du zuzendari.

XX. mende hasieran Gernikan jazotako klase borrokari loturiko gertaera historikoa du oinarri antzezlanak: armagintzako Esperanza y Unceta enpresako (gero Astra izenagaz ezagutuko zena) langile eibartarrek 1913ko udazkenean Gernikan egin zuten greba, hain zuzen.

Eibar-Gernika

Lantokia Eibartik Gernikara aldatu dietenean, Busturialdera lan egitera eta bizitzera doazen Fermin Larragoicoa eta Justina Garate bikotea, eta Arrate, euren alaba, dira *Guernica 1913* antzezlanaren protagonistak.

Egungo “balioen eta borroka moldeen aldaketa, eta altxatzea horrenbeste kosta zena zelan dabilen jausten” erakutsi gura dute lan honeguz Banartekoek.

> LITERATURA

Sarrionandiaren lanari buruzko egitasmoa abian

Joseba Sarrionandia Iurretako idazlearen lana gustuko duten hainbat herritar literaturazalaren ekimenez, eta Durangoko Plateruena Kafe Antzokiaren laguntzagaz antolatutako egitasmoa da *Sarri hitzez eta ahotsez*. Otsailaren 18an, Durangoko Udal Liburutegian jarri dute ekimenaren lehenengo hitzordua: Joxemari Iturralde *Joseba Sarrionandiaren lanaren inguruan zenbait zertzelada* berbaldua eskainiko du, 19:00etan.

Martxoaren 12an eta apirilaren 2an, Sarrionandiaren lanaren gaineko solasaldi bana izango da aukeran (*sarri.joseba@gmail.com* helbidean eman behar da parte hartzeko izena). Maiatzaren 9an, sei orduko jendaurreko irakurketa hartuko du, bestalde, Plateruena.

Kirola

Asier Larrea Seval | Abadiño, 17 urte | Abadiño sokatira taldeko tiralaria

“Kanpotik astakilo samarra ematen du, baina barrutik ezagutu ostean, arte bat da”

Hasi arte sokatirari buruzko oso oinarrizko ezagutza zuen Asier Larreak, abendura arte munduko txapelketarik bazegoenik ere ez zekien; datorren astean, berriz, munduko sokatira talderik onenak bertatik bertara ezagutuko ditu, Abadiñogaz Irlandara doalako



Martitzenean Irlandarantz abiatuko da Abadiñogaz, Munduko Txapelketan parte hartzeko.

► JOSEBA DERTEANO

Abadiño sokatira taldeko tiralaririk gazteenak 17 urte ditu. Aurtan hasi da, eta oso pozik dabilela dio. Sokatirari buruz zuen ideia erabat aldatu zaio barrutik ezagutu duenean. Indarrarena baino, teknikaren kirola dela konturatu da.

Sokatiran hasi aurretik beste kirol batzuk probatutakoa zara. Zeintzuk?

Txikitan Astolako igerilekuan egiten zuten proba batean parte hartu eta gustatu egin zitzaidan. Astolako taldean izena eman eta lau-bost urte eman nituen han. Gero, hango lagun batzuekin Mugarra Triatloi Taldean ibili nintzen urtebetez. Aisialdian sarritan joaten naiz korrika egitera, eta igerian banuen dagoneko oinarri bat, baina bizikleta ez zitzaidan askorik gustatzen. Proba bitan bakarrik parte hartu nuen: Ermuko duatloian eta Bermeoko triatloian.

Zelan batu zinen sokatira taldera?

Aitak Edu [Mendizabal, entrenatzailea] ezagutzen du, eta Eduk sokatira ezagutzeko gonbit egin zidan. Probatzea erabaki, eta gustatu egin zitzaidan.

Orain artekoa zelako esperientzia izan da?

Hasi nintzenean, sokatirari

buruz oinarrizkoa bakarrik nekien: zortzi lagun alde banatan sokari tiraka. Ez nekien txapelketak pisu jakin batera mugatuta daudenik ere. Kanpotik begiratuta astakilo samarra ematen du kirolak, baina barrutik ezagutu ostean, arte bat da. Pertzepzioa asko aldatzen da. Gerriarekin ondo eutsi behar zaio, hankek postura jakin bat izan behar dute, eskuekin ondo heldu behar zaio sokari... Ez da indar kontua bakarrik.

Beraz, harritu egin zintuen sokatirak.

Bai, berari buruz nekiena oso azalekoa zela ohartu nintzen. Esaterako, sokari lehenengoz eutsi nionean ez nuen gerririk, eta Eduk hainbat azalpen eman zizkidan, soka gerrira zelan moldatu jakiteko. Detalleek dute garrantzia. Kirol polita da, asko gustatzen zait.

Zelakoak dira entrenamenduak?

Oso gustura nabil. Denak esperientzia handiko tiralariak dira, eta asko laguntzen didate. Eduk batzuetan talde bi egiten ditu: txapelketan ariko direnak eta besteak. Niri oso ondo datorkit hori, besteak tiratzen ikusi egiten ditudalako, eta horrela ikasten delako.

Orain arte zenbat txapelketatan parte hartu duzu?

Bizkaiko Txapelketan Abadiñorekin aritu nintzen, eta irabazi egin genuen. Hori izan nuen nire lehenengo txapelketa. Irabazi

“

Kristoren esperientzia da, eta itzelezko gogoia dut Munduko Txapelketara joateko”

izan asko motibatu ninduen. Ondorengo txapelketa batzuetan beste talde batzuekin aritu nintzen. Eduk esan zidan ondo etorriko zaitzaidala ikasten joateko. Seis Conceyos asturiarrek, Nabarnizegaz eta Muruetagaz ibili naiz ondoren. Bizkaiko Txapelketa irabazi ostean, apur bat harrotu edo puztu egin nintzen, eta beste talde batzuekin aritzeak errealitatea ikusteko balio izan dit. Benetako sokatira zer den ikusi dut horrela.

Txapelik irabazi duzu?

Bizkaiko Txapelketan ez zen txapelik egon. Oroitzapen on asko ditut, baina txapelik ez; beno, badut txapel bat Mikel Lasuen taldekideak emandakoa, berak pilo bat dituenez...

Munduko talderik onenean zabilta. Horrek erantzukizun gehigarri bat dakar beragaz?

Oraindik ez, baina ikusi dut Abadiño talde handia dela. Orain hilabete batzuk Taiwango tiralariak etorri ziren, eta Abadiñok egiten zuen guztia apuntatu egiten zuten. Taiwanen bizi diren batzuk hona etorri, eta Abadiñok egiten duena kopia zuten! Horrez gain, Herbehereetako talde bat guk zer zapatila erabiltzen dugun begira aritu da Interneten. Horrelakoetan konturatzen naiz oraindik hau dena apur bat handi geratzen zaidala, baina merezi duela ere uste dut, eta ikasteko gogoz nago.

Eduk zer esaten dizu?

Beti esan dit neure burua besteekin ez konparatzeko, hasiberria naizela, eta besteek nik baino askoz hobeto egingo dutela. Askotan nire gainean egoten da, eta pausoka-pausoka saiatzen da gomendioak ematen: “Orain eskuekin hau, gero hanka bat mugitu, ondoren bestea...”. Badakit asko dudala ikasteko.

Datorren astean Irlandara zoazte Munduko Txapelketan parte hartzera. Zein tiralditan parte hartuko duzu?

Martitzenean irtengo gara harantz, eta sei bat egun egongo gara. Abadiñogaz ez bada, beste talderen batekin arituko naizela esan didate. Hori sarritan egiten da, batzutan beste talde batzuekin aritzen dira tiralariak, eta,

beharbada, Irlandako edo Herbehereetako talderen batekin ibiliko naiz.

Noiz esan zizuten Munduko Txapelketara joango zinela?

Arin jakin nuen, abendu inguruan. Jendea Munduko Txapelketari buruz galdetzen hasi zen, eta, jakina, nik ez nekien ezer. Munduko Txapelketa? Zer txapelketa? Orduan azaldu zidaten bi urterik behin munduko talderik onenak Munduko Txapelketan lehiatzen direla. Ni, seguruenik, joango nintzela esan zidaten, tiratzen ez bazen, ikusteko, baina gauza bat eskatu zidaten: jarraitutasuna. Ilusio handia egin zidan. Kristoren esperientzia da, eta joateko itzelezko gogoia dut. Gainera, institutuko azterketak asteon amaitu ditut.

Zeintzuk dira zure dohainak eta zertan hobetu behar duzu?

Nire abantailetakoa bat da pisu gutxi dudala, eta horrela mantentzea ez zaidala kostatzen. Hori besteek eskertzen dute, ez dutelako hainbeste pisu kendu behar. Ikasi behar dudana da sokari egoki eusten. Horretako gauza asko ondo egin behar dira, bestela, mugimenduagaz lurrera erortzen zara.

Gauza bat da hastea eta beste bat jarraitzea. Sokatiran luzaroan jarraitzeko asmoa duzu?

Kirol honek asko erakartzen nau. Teknika hobetzen zozzen heinean hobeto tiratzen ikasten da. Ez da indar kontua bakarrik. Koordinazioak ere asko esan gura du. Batek indarra egin, baina besteek ez badiote jarraitzen, alperrik da. Zortzi lagunek bat izan behar dute. Indar aldetik onena ez izanda ere, soka gelditu gustura egotea lortzen baduzu, besteak azkenean nekatu egingo dira. Abadiñok hori oso ondo egiten du.

Abadiñok talde finkoa izan du luzaroan. Erreleborik badator?

Askok antzeko adina dute. Denak batera hasi ziren, eta batera joan dira urteak betetzen. Inguruan ez dut halako afiziorik ikusten. Nire lagunei sarritan esaten diet etortzeko, probatzeko, baina oraingoz ez ditut konbentzitu. Ea, apurka, jende berria etortzen den.

> **ERRUGBIA**

Elorrio faborito argia dela jokatuko dute derbia zapatuan, Arripausuetan

Biharko derbiak kolore hori-beltza du aurreikuspen guztien arabera; Elorrio hobeto dabil Euskal Ligako bigarren fasean, eta 10 puntu ditu; DRT B taldeak oraindik ez du punturik batu denboraldi osoan



DRT B taldeko jokalariek entrenamendu saio batean. Kepa Aginako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Euskal Ligako lehen fasean euren multzoko talderik kaskarrenak izan ostean, orain bigarren faseko mailarik baxuenean dihardute Elorrio Parra Taberna eta DRT B taldeek. Maila berdintsuko taldeen multzoan, Elorriok gora egin du, eta 10

puntuag sailkapenaren erdian dago. DRT B-k, aldiz, ezin du bururik jaso, ezta maila horretan ere, eta puntu barik darrai. Testuinguru horretan, Elorrio faborito argia da zapatuan, 16:00etan, Durangoko Arripausuetan jokatuko duten derbia irabazteko.

Lehen fasean Elorrio Parra

Tabernak 32-5 irabazi zion Durangoko taldeari. Hain zuzen, hura izan zen elorriarrek lehen fasean irabazi zuten partidu bakarra. Bigarren fasean erosoago dabilta, gora egin dute, eta Uribealdea multzoko liderra bost puntura dute. DRT B-ren egoerak ez du ematen

atzerabueltarik duenik aurtengo denboraldian. Arrazoi bategatik edo beste bategatik, talde oso laburra du, eta horrek taldearen ibilera baldintzatu du. Ricardo Costa entrenatzailearen esanetan, "partidu batean baino gehiagotan ezin izan dugu lehiari aurre egiteko hamabostekorik osatu". Beraz, jokalaria bat edo bi gutxiagotzat jokatutuzte partidu batzuk. Esaterako, lehen faseko derbian jokalaria bat gutxiagotzat jokatutuzten. Arazo hori bera Elorriok ere izan du errugbi taldeko Dani Palaciosen azaldu duenez, eta partidu batean baino gehiagotan hasierako hamabostekoa osatu ezinik ibili dira.

> **Nagusiak Coruñaren aurka**

Bestalde, DRTko talde nagusiak Coruña taldearen bisita jasoko du, domekan, 12:00etan. Orain arte Ohorezko B Mailan jokatutako 12 jardunaldietan garaipen bi lortu ditu. Bata etxetik kanpora, Universidad Bilbao taldearen aurka (12-34), eta bestea etxean, Oviedoren kontra (36-34). Galiziako taldeak hamar puntu gehiago ditu sailkapenean.

ADITUAREN TXOKOA

Juan Carlos Perez

Areto-futbola

Lehiakortasuna

Lehiakortasuna: berba mada-rikatua, gizarteari gizatasuna kentzen ari zaiona eta kirolera ere heldu dena. Orain aste batzuk Mallabiko kadete batek partidu bat jokatutuzten etxetik kanpora, eta gol kopuru handiz irabazi zuten. Partidu hartan gertaera tamalgarri bat jazo zen. Markagailuan alde handitzen zihoan heinean, beste taldeko gaztetxoaren gurusoak euren semei agiraka egiten eta iraintzen hasi ziren. Non geratu da garrantzitsuen parte hartzea zela zioen esera hori?

Orain irabazteak bakarrik balio du, bai edo bai, eta edonola. Orain gutxi harro sentitzen ginen Mallabian Hirugarren Mailako taldearen partiduetara joaten zen ikusle kopuruagatik (150-200 zale artean). Bada, 2013ko abenduko partidu biak oso kiroltasun gutxiko jarrerekin amaitu dira. Gazte eta ume asko zeuden harmailetan. Zer adibide ematen ari gara? Kirol balioak galtzen ari dira edozein prezioan irabazteko obsesioagatik. Lehiakortasuna aldarri hartuta "denak balio du" elkartearen ezarri da dagoeneko kirolean, baita zaleengan ere. Areto-futbola, zoritxarrez, ez dago tendentzia horretatik aparte. Araudia joko gogorra eragozteko diseinatuta dagoen arren, egia dena da partidu asko eztabaida eta istiluekin amaitzen direla. Klubeko ordezkariok lan zail eta gogorra dugu aurretik, egoera honi buelta emateko, kontrako korrontean gabiltzako igeri, gizatasuna galtzen ari den gizartean.

*Erredakzioan itzulita

> **ARETO FUTBOLA**

Elorrioko Sasikoarengandik hiru puntura jarri daiteke

Derbian neurtuko dira zapatuan; talde biak goian dabilta, eta sei puntuko alde dago elkarren artean

Zapatuan, 18:00etan, derbia jokatuko dute Elorrioko Buskantzak eta Sasikoak Elorrioko kiroldegian. Talde biak Hirugarren Mailako goialdean dabilta. Durangoko taldea laugarren dago eta Elorriokoa bosgarren, eta bien artean sei puntuko alde dago. Beraz, etxean jokatuko duen derbia irabazita, Elorriok

berbertan izango luke Sasikoak harrapatze aukera. Gainera, kontuan hartu behar da bigarren eta hirugarren sailkatuta dauden Bilbo eta Laskorain ere ez daudela urrun: Sasikoak baino puntu bat gehiago dute. Sasikoa bolada onean dabil, eta azken lau partiduetatik hiru irabazi eta bat berdindu ditu.



Sasikoak aurreko jokatutako partidu batean ateratako irudia. Kepa Aginako.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

momotx
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

AMONG

‘THE BEST’

OPTIONS IN THEIR CLASS **WHATCAR?**“Euren motakoen artean,
aukerarik onenatarikoak dira”
TEKNOLOGIA HOBEA
 Erabateko lotura SYNC teknologiarekin.
 Ahotsaren bidezko kontrol sistema.
PREZIO HOBEAK

FORD FIESTA
8.590€

FORD FOCUS
12.990€

**Ford Fiesta eta Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,6tik 7,2ra (l/100 km).
 CO2-aren isurtzea 95 g/km-tik 160 g/km-ra**

Fiesta 3p Trend 1.25 60 zaldi-potentzia (44kw) airearekin eta CD MP3 irratiarekin; Focus Trend 1.0 EcoBoost (EcoBoost Motorrak %20ra arte hobetzen du kontsumoa, motor arrunt batekin alderatuz gero) Auto-Start-Stop 100 zaldi-potentzia (74kw) 5P Barneko Paketea eta Style Paketearekin. Eskaintzek honako hauek dituzte: BEZA, I.M., garraioa, sustapen deskontua, Aport. Emate eta deskontua FCE Bank plc S.E. entitatearekin finantzatzearren, "Vente a Ford Credit" kanpainaren bidez; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Gobernuaren PIVE planaren ekarpenari lotua. Penintsulan eta Balear Uharteetan baliozko, hilabete amaierara arte. Ez da bateragarria bestelako deskontuekin. Posible da argazkiko modeloa eta eskaintzakoa bat ez etortzea. Auto biak, euren motakoen artean, aukerarik onenatarikoak direla aipatu zuen WhatCar? gidak 2013ko maiatzean.

www.fordkondia.com**FORD KONDIA**

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650 Tel.: 943 200 966

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea 19 IURRETA

Tel.: 946 217 130



ford.es

> **FUTBOLA**

G. Arana: "Sailkapenak ez du balio; derbi bat berezia da"

Igoera fasean goian dabil Elorrio, eta azken tokian Iurretako; hala ere, Elorrion ez dute euren burua faboritotzat jotzen: "Derbi bat beti da desberdina"



Iurretakoko jokalariek martitzen iluntzeko entrenamenduan. Kepa Aginako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Emakumeen futboleko ordez-kari bi bakarrik ditu Durangaldeak nagusien mailetan: Elorrio eta Iurretako. Beraz, elkarren artekoak dira denboraldi osoko derbi bakarrik. Horregatik, intentsitate eta gogo bereziz itxaroten dituzte norgehiagoka horiek. Aurtengo denboraldiko bigarren derbia zapatuan, 18:00etan, jokatu dute, Arri-pausuetan, eta sailkapenak Elorrio hobeto dabilela erakutsi arren, ez dute faborito zigilurik gura. Derbiak "desberdinak" dira, adierazi du Gontzal Arana elorriarren entrenatzaileak.

Talde biek bete dituzte dagoneko denboraldi hasieran markatutako helburuak. Liga erregularrean aurreneko bosten artean sailkatu ziren, eta igoera

fasea jokatzen dihardute. Elorrio hirugarren dago, orain arte lau partidu irabazita (etxetik kanpoko hirurak) eta bi galduta. Iurretako, aldiz, azken tokian dago partidu bakarra irabazita. Baina Aranaren ustez, sailkapenak erakusten duena "ez da fidagarria". Derbiak "bereziak eta desberdinak dira, lehia handia dago talde bien artean, eta edozer gertatu daiteke".

Elorriok iazko blokeari eusten dio; jokalariek berri bi bakarrik ditu, eta horrek taldearen dinamikan eta errendimenduan zerikusia izan duela uste du Aranek. Orain, sei puntura dute Ugao liderra (talde bakarra igotzen da Bizkaitik), baina partidu asko falta dira jokatzeko. Datozen jardunaldietan goikoek elkarren kontra jokatu dute-

nez, Elorriok garbi du zein den bere zeregina: partiduak irabazten jarraitzea eta aurretik dituztenei presioa sartzea.

Iurretakok entrenatzaile berria du aurtentzen: Jon Gallego. Igorrekoa da eta 29 urte ditu. Iaz Zornotza taldea entrenatu zuen, eta handik lau jokalariek ekarri ditu Iurretakora, laurak gazte mailakoak. Lehen fasean jokatutako derbian 4-1 galdu zuten arren, bihar errebantxa hartzeko aukera ikusten du, batez ere, aurtentzen, etxeko partiduetan Iurretako erakusten ari den sendotasunagatik.

Iurretako jokalariek gazteek osatzen dute, eta oraindik formazioan dagoen taldea dela dio Gallegok. Aurtentzen sailkapen erdian amaitu, eta datozen urteetan gorago ibiltzea dute helburu.

> **DUATLOIA**

Hiru urtez segidan irabazi du Fradesek Ermuan

Duatloi zirkuituko lehen proba irabazi zuen Gurutze Fradesek; Oier Ariznabarreta bigarren sailkatu zen

Mugarra Triatloi Taldeak Euskal Herriko duatloi zirkuitua lehiatzeko hautagai sendoak ditu, aurtentzen, emakumeetan eta gizonetan. Joan zen zapatuan, zirkuituari hasiera eman zion Ermuko V. Duatloian, Gurutze Frades nagusitasunez gailendu zen emakumeetan. Ia lau minutuko alde ateratzen zion Lourdes Oiarzabal bigarrenari. Horrela, hirugarren urtez segidan Ermuko duatloia irabaztea lortu du iurretarrak. Amaia Eguren taldekidea zazpigarren sailkatu

zen sailkapen orokorrean eta junior mailan irabazi egin zuen.

Gizonetan, Oier Ariznabarreta durangarra lasterketa irabazteko zorian izan zen, baina azken esprinterak indartsuago heldu zen Pello Osoro. Segundo bakarreko alde izan zen bien artean: "Pena izan da boxetan kaskoa kentzen hainbeste denbora galdu izana. Esprinta oso gogorra izan da. Meritu osoa Pellorentzat da, bizikletan partzial sinestezina egin duelako", adierazi zuen Ariznabarretak.

> **KROSA**

Ordezkaritza zabala sartu da Espainiako Txapelketan

Euskadiko Txapelketan Bidezabal eta Durango Kirol Taldeko hainbat korrikalari nabarmendu dira

Joan zen domekan Kros Luzeko Euskadiko Txapelketa jokatu zuten Laudion. Bidezabal eta Durango Kirol Taldeko korrikalariak helburu bikoitza izan zuten: txapelketa lehiatzea eta Espainiako Txapelketara sailkatzeko aukera ematen duten postuak lortzea. Biak lortu zituzten.

Bidezabalek gazte eta kadete mailako taldeak sailkatu ditu Espainiako Txapelketarako. Kadeteetan, Garazi Lekunberrik Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, eta Nerea Costa bosgarren sailkatu zen. Gazte mailan, Ale-

> **TRINKETEA**

Antxiak eta Uriartek irabazi dute San Blas Saria Tornosolon

Rober Uriarte eta Ander Antxia abadiñarrak dira San Blas pilota txapelketako aurtengo irabazleak, lehen mailan. 75 minutuko partidu gogor eta luze baten ostean, 40-30 irabazi zuten finala Sebastien Sorhuet eta Inhar Ugarteren kontra. Beti aurretik joan ziren markagailuan, baina alde handirik atera barik. Antxiak atzelarien arteko jokoa menderatu zuen, eta horren bidez Uriartek tanto politik egin zituen aurrean.

Bestalde, zilarrezko mailan, Liher Gandiagak eta Asier Aspuru abadiñarrak irabazi zuten Gordon eta Bilbaoren aurka, baina partidua ez zen amaitu. Izan ere, 18-16 aurretik zihoztean, hankan min hartu zuen Bilbao lemoarrak. 26-16 emaitzara arte jarraitu zuen, baina gehiago jarraitu ezinik bertan behera utzi zuen neurketa.

> **FUTBOLA**

Mendibeltz sorpresa ematen saiatuko da Mallabiaren aurka

Joan zen asteburuan denboraldiko bigarren garaipena lortuta, Mendibeltzek indarberrituta hartuko du bihar, 16:00etan, Mallabia B bigarren sailkatuaren bisita, Landakon. Oraindik zuloan jarraitzen du, baina joan zen asteburuan garaipen handia lortu zuen Ermuko Saltzaileak B-ren aurka. 2-0 galtzen joan, eta markagailua iraultzea lortu zuen (2-3). Mallabia B, aldiz, Elorriko Txikiren kontrako derbia galtzetik dator: 2-4.

> **AGENDA**> **FUTBOLA****OHOREZKO MAILA****Elorrio - Padura**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA**Zaldua - Aranguren**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)**Berriz - Ugao**

· Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA**Iurretako B - Orduña**

· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelaian.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)**Iurretako - Elorrio**

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> **ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****Elorrioko Buskantza - Sasikoa**

· Zapatuan, 18:00etan, Landakon.

Mallabia - Aurrera Vitoria

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

MAILA GORENA**Sapuberri - Sasikoa B**

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA**Abadiñoko Gaztetxie - Zamudio**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza C - Hegalariak

· Domekan, 12:15ean, Elorrioko udal kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA**Mendibeltz - Mallabia B**

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Elorriko Txiki - Usansolo

· Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko udal kiroldegian.

Gu Lagunak - Egartsuak

· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

> **SASKIBALOA****LEHENENGO MAILA (gizonak)****Tabirako Baqué - Biok Zerbitzuak**

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

LEHENENGO MAILA (emakumeak)**Tabirako Baqué - Bera Bera**

· Domekan, 17:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA**Tabirako Baqué - Jarrileros**

· Zapatuan, 18:45ean, merkatu plazan.

BIGARREN ERREGIONALA**Julza Zaldua - Saskel**

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarren.

Tabirako Baqué - Zornotza

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

> **ERRUGBIA****OHOREZKO B MAILA****DRT - A Coruña**

· Domekan, 12:00etan, Arripausuetan.

EUSKAL LIGA**DRT B - Elorrio**

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.



GREMIOEN GIDA

 **DEKORAZIOA**

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garain A - Berriz.
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com

 **ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA**

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

 **ITURGINTZA**

Solaguren kalea, 3 - ABADIÑO
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
urtiaga.sil@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

 **GARBIKETA**

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goleta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

 **LOREZAINNTZA**

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



Profesional onenak zure zerbitzura!

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIJUAN

DURANGO

- Logela bakarreko, 2 logelako eta 3 logelako etxebizitzak alokairuan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO. ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen hasi gara. Logela 2 eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000tik aurrera.
- LEKEITIO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.
- DURANGO. Apartamentua. Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000.
- DURANGO. ERDIALDEAN: Logela 2, komun 1 eta sukalde amerikarra guztiz jantzia. Etxebizitza berria eta guztiz jantzia.
- ABADIÑO. ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- DURANGO. ASK. ETORB.: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- DURANGO. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- DURANGO. ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua. Prezioa zehazteke.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ATXONDO. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.
- ZALDIBAR. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

- BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Landa ederra eta sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- MATIENA-ABADIÑO. 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta -arbolekin.
- IURRETA. 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide ona.
- OLETA-OTXANDIO. 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.
- ABADIÑO. Bi familiarentzako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Aurrez aurreko informazioa.
- DURANGO. Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.
- ZORNOTZA- EUBA. 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati. Bakoitzean familiarentzako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.
- ZORNOTZA- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila zoragarria. Dena lurzati berean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- DURANGO. Eraikin atxikia. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreinatzeke.
- BERRIZ - MURGOITIO. Nekazal turismorako baserri zoragarria. Ikuspegi ederrak.
- BERRIZ- EITUA. Aurrealdean arkua duen baserri ederra. Bi familiako etxebizitza egiteko aukera.
- ETXEBARRIA - ITURRETA. 5 has baino gehiago duen baserri ikusgarria. Lur zati bakarrean eta baserria inguratzen.
- MUXIKA. Berroja auzoa. 2 baserri salgai. 8 hektareetako lursaila inguruan. Biak batera eta banatuta erosteko aukera.

TXALETAK

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komun eta 2 logela. Ganbara.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-ARLOZABAL: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoi 2. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea.
- ELORRIO: Berreraikitzeke etxea, lursailduna.
- IURRETA: halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trastelekua. Guztiz berriztua.
- IURRETA-ARRIANDI: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trastelekua. Oso egoera onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubieta. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- BASERRIA LUR EREMUJAREKIN SALGAI MENDATAN ETA BERRIZEN.
- MAÑARIAN ADOSATUAK SALGAI.

BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERRIZ



- Iturriza. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. **95.000€.**

BERRIZ



- Berrizbeitia. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. **115.000€;** negoziagarriak.

MATIENA



- Solaguren. Logela 2, sukalde-jangela eta komuna. Ezin hobea. **108.000€.**

DURANGO



- Aramotz. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Despentsa. **99.500€.**

DURANGO



- San Fausto. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Leiho berriak. Komuna berriztua. Berogailua. **125.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA BERRIAK

- ZALDIBAR: Azkeneko etxebizitzak. Garajearekin eta trastelekuarekin. 105.000€-tik aurrera. (BEZA barne). %100eko finantzazioa Nafarroako Rural Kutxan.

EROSI ALOKAIJUAN

- DURANGO: 600€ hilean. Bizitzen sartzeko moduan. Seinala: 6.000€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela eta komun 2. Terraza. Berogailua, gas naturala, ganbara eta garajea.
- IURRETA: 400€ hilean. Seinala: 3.600€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela, egongela handia eta komuna. Jantzia. Berogailua. Berriztua.
- ABADIÑO: 600€ hilean. Estreintu gabe dagoen etxebizitza. Sukalde jantzia, komunak eta horma-armairuak.
- ALDE ZAHARRA: Atikoa. 600€ hilean. Seinala: 1.200€. Apartamentua. 35 m2-ko terraza. Ikuspegi ederra.
- GOIENKALEA: 550€ hilean. Seinala: 1.800€ hilean. Eraikuntza berria. Apartamentua. 136.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trastelekua eta garajea.
- MATIENA: Laubideta. 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukaldea esekitokiarekin. Trastelekua.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, egongela eta sukaldea despentsarekin. Terraza. 169.000€.
- ARTEKALEA: 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea office-arekin. Bizitzera sartzeko moduan. 136.000€.
- EZKI: Duplexa. 2 logela. Bizitzen sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.
- ALDE ZAHARRA: 3 logela eta egongela. Igogailua. 126.000€.
- EZKURDI: Pisu altua. 4 logela, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- FRANTZISKO IBARRA: 2 logela, komuna, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- DURANGO: 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 95.000€.
- DURANGO: 2 logela, egongela eta sukaldea office-arekin. 138.000€.
- MURUETA TORRE: Azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.
- IURRETA: Berriztua. Igogailua eta berogailua. Eguzkitsua. 156.000€.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Garajea. Igerilekua. 240.000€.
- TABIRA: Apartamentua. Erdi berria. Sukaldea eta komuna jantziak. Ganbara. 160.000€.
- TABIRA: 3 logela eta 2 komun. 1. go mailako materialak. Etxe osoak kanpora ematen du.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea eskegitokiarekin. Trastelekua eta 2 kotxerako garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.
- IZURTZA: 2 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 124.000€.
- BERRIZ: 2 logela. Berriztua. 136.000€.
- OTXANDIO: Baserria. 240 m2. 126.000€.
- DURANGO: Txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.
- BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000€.
- BERRIZ-ELORRIO: Baserria. 2 etxebizitza. 420 m2. 22.000 m2-ko lursaila.
- ATXONDO-TXALETA: Eraikuntza berria. Familiabakarra. 4.000 m2-ko lursaila.

www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Otsailaren 16an, 12:00etan, 18:00etan eta 18:45ean, Durangon

Planeta KA

Hiru emanaldi eskainiko ditu Kataluniako Imaginart taldeak, Durangoko San Agustin kulturgunean, domekan. Eguerdian emanaldi bat, eta arratsaldean bi eskainiko ditu konpainiak. Urte bat eta hiru arteko umeentzat pentsaturiko ikuskizuna da Planeta KA, umeek esperimintatzeko proposamena.

Antzerkia

:: ABADIÑO

Otsailaren 16an, 18:00etan, **Aladdin**, Errota Kultur Etxean.

:: BERRIZ

Otsailaren 14an, 18:00etan, **Babia**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Otsailaren 16an, 12:00etan, 18:00etan eta 18:45ean, **'Planeta KA'**, San Agustinen.

Otsailaren 17an, 17:30ean, **Antzerkitxiki 2014: Ilargiaren zati bat**, Plateruenean.

Otsailaren 18an, 17:30ean, **Antzerkitxiki 2014: Antzina taupadak**, Plateruenean.

Otsailaren 19an, 17:30ean, **Antzerkitxiki 2014: Jolastokitik espaziora**, Plateruenean.

Otsailaren 20an, 17:30ean, **Antzerkitxiki 2014: Irakurritz amestuz**, Plateruenean.

Otsailaren 21ean, 17:30ean, **Antzerkitxiki 2014: Urtaroei adi, txantxangorria gidari**, Plateruenean.

:: ELORRIO

Otsailaren 14an, 22:00etan, **Konpota**, Arriolan.

Otsailaren 21ean, 22:00etan, **'Figurantes'**, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Otsailaren 15ean, 18:00etan, **On egin**, Zornotza Aretoan.

Erakusketa

:: DURANGO

Otsailaren 23ra arte, **tailu erakusketa**, Ezkurdi udal aretoan.

Martxoaren 2ra arte, **Leo Simoes argazkilaria 'Euri eta eguzki egunak'**, Arte eta Historia Museoa.

:: ELORRIO

Otsailaren 27ra arte, **Horma pintura Bizkaian: izkutuko ondarea (1450-1850)**, Iturri kultur etxean.

Musika

:: DURANGO

Otsailaren 14an, 19:00etan, **Alboka musika eskola**, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

Otsailaren 14an, 21:30ean, **Durang(h)ots jam session**, Plateruenean.

Otsailaren 15ean, 22:30ean, **Audience + Le Noise**, Plateruenean.

Otsailaren 21ean, 18:00etan, **ikasle nagusien kontzertua**, musika eskolan.

Otsailaren 21ean, 22:30ean, **Anari + Napoka Iria**, Plateruenean.

Kontalaria

:: DURANGO

Otsailaren 14an, 19:00etan, **Ernesto Aguirerren helduentzako kontalaritza saioa**, Udal Liburutegian.

:: IURRETA

Otsailaren 21ean, 17:30ean (3-4 urtekoak) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoak), **Izaskun Mujika**, Herri Bibliotekan.

Lehiaketa

:: DURANGALDEA

Otsailaren 10etik martxoaren 10era arte, **Durangaldeko II. Maketa Lehiaketara** lanak bidaltzeko epea. Informazio gehiago: 'gazteinfo@amextx.net' helbide elektronikoan.

Tailerra

:: DURANGO

Otsailaren 20, 25, eta 27an (18:00etatik 20:00etara), **Aurpegia margotzeko tailerra**, Ibaizabal ikastolan. Izen-ematea: otsailaren 18ra arte, Berbaro elkartearen.

:: ELORRIO

Otsailaren 22an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era, **Autodefentsa tailerra**, Iturri kultur etxean. Izen-ematea: otsailaren 20ra arte, udal erregistroan.

Bideoforuma

:: IURRETA

Otsailaren 19an, 18:30ean, **'El cambio'**, Ibarretxe kultur etxean.

Zinema

:: BERRIZ

Otsailaren 14an, 22:00etan, eta 16an, 19:00etan, **'La gran familia española'**, Kultur Etxean.

Otsailaren 21ean, **'Lluvia de albóndigas II'**, Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Robocop

Zuzendaria: José Padilha

- barikua 14: 19:30/22:00
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 18:45

Asier eta biok

Zuz.: Aitor Merino eta Amaia Merino

- domeka 16: 21:00
- astelehena 17: 21:00
- martitzena 18: 20:00

2. ARETOA Robocop

- zapatua 15: 17:00
- domeka 16: 17:00
- astelehena 17: 18:30/21:00
- martitzena 18: 20:00

Asier eta biok

- barikua 14: 19:30
- zapatua 15: 22:30

La gran estafa americana

Zuzendaria: David O. Russell

- barikua 14: 22:00
- zapatua 15: 19:30
- domeka 16: 19:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

El lobo de Wall Street

Zuzendaria: Martin Scorsese

- zapatua 15: 22:30
- domeka 16: 20:00
- astelehena 17: 20:00

:: ZORNOTZA

La gran estafa americana

Zuzendaria: David O. Russell

- barikua 14: 20:15
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 20:00
- astelehena 17: 20:15

El extraordinario viaje de Lucius Domb

Zuzendaria: M. Ruiz de Austri

- domeka 16: 17:00

Blue Valentine

Zuzendaria: Derek Cianfrance

- martitzena 18: 20:00

Otsailaren 14an, 18:00etan, Berrizen

Babia

Ganso & Cia talde durangarrak ume eta helduentzako sorturiko antzezlan da 'Babia', taldeak antzoki barrurako prestatu duen lehenengoa. Gorka Gansok eta Txefo Rodriguezek jarduten dute antzezle lanetan, Iñaki Rikartek zuzenduta. Bakoitza bere munduan, ilargian, bizi diren bi lagun dira obraren protagonistak. Berbarik barik, keinuen bitartez bakarrik, adiskidetasunari eta imajinarioari buruzko istorioak kontatzen ditu antzezlanak.



> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak bihotz bihotzez zure zortzigarren urtebetetzean. Mosu handi bat printzesa!



> Otsailaren 10ien lau urte bete ebazan **Intzak**. Zorixonak laztana! Mosutxo pila-pila patata tortila!



> **Urko Izak** bihar 6 urte egingo dauz. Zorionak Bidart, Helene, eta etxeko eta lagun guztien partez!



> Zorionak pilo bat maite zaitugun gurasoen partez! Musu pilo-pilo bat!



> Urtebetetze egun zorionsua opa dizu Felixek. Zorionak familiaren partez!



> Zorionak pitxina! Ze pena argazki honetan zure ilegorria ez igertzea, hala ere oso guapa zauz! 27urteTXO!



> **Enetz** eta **Manex** lehengusuak dira eta laster zazpi urteko beteko dituzte. Uuuuaaau! Zorionak eta musu bana!



> Gure mutil handiak zortzi urte bete ditu otsailaren 11n. Belarritik zortzi tirekada Laia, Haitz, aitatz eta amatxon partez!



> Zorionak **Maitane**, maite zaitugun guztien partez! Egun polita pasa dezazula! Musu piloa!



> Begi eder bi eta egia bat. Zorionak etxekoen partez!



> Zorionak mutil handi! Ondo-ondo pasau zure urtegunean etxekoen partez!



> **Mikelek** hiru urte bete ditu. Zorionak Axpe eta Mañaritik!



> Zorionak **Itsas**! 21 muxu, besarkada, laztan ta belarri tirakada handi kuadrillako danon partez!



> Erretiroa ala biziarteko pentsioa eman dizute? Zorionak Matienako jendearen partez!



> Abarketeruena barrero zabalik daukagu. Zorionak Axpetik eta animo bertako neska langileei. Zorte on!

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 14**
09:00-09:00
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
09:00-22:00
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- ZAPATUA, 15**
09:00-09:00
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 16**
09:00-09:00
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
- ASTELEHENA, 17**
09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- MARTITZENA, 18**
09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
- EGUAZTENA, 19**
09:00-09:00
• **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
- EGUENA, 20**
09:00-09:00
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 94 681 09 49
Osakidetza 94 600 72 00
Ertzaintza 94 466 93 00

> GARRIAOAK

- Euskotren 902 54 32 10
Bizkaibus 94 448 40 80
Pesa 902 10 12 10
Continental Auto 945 286 466

> TAXIAK

- Abadiño 94 681 44 70
Matiena 606 459 988
Durango Geltokia 94 681 10 01
Elorrio Geltokia 94 682 00 40
J.L. Uriarte 670 402 002
I. Estebez 670 678 273
M. Galeano 670 409 330
Iurreta 94 620 15 65
Taxi auzunea 688 618 690
Berrizko auzo taxia 620 022 800

> UDALAK

- Abadiño 94 621 55 30
Atxondo 94 682 10 09
Berriz 94 682 45 84
Durango 94603 00 00
Elorrio 94 658 27 12
Garai 94 681 63 93
Iurreta 94 620 12 00
Izurtza 94 681 35 48
Mallabia 943 17 14 61
Mañaria 94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar 94 682 70 16

> UDALTZAINGOA

- Abadiño 94 621 55 33
Berriz 94 682 40 36
Durango 94 603 00 00
Elorrio 94 682 02 18
Iurreta 94 620 08 88

3° 12° ZAPATUA ☁	2° 10° DOMEKA ☁
2° 12° ASTELEHENA ☁	5° 11° MARTITZENA ☁

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena)
Eguaztzenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Porruak 1,80 euro/tx
Azenarioak 1,50 euro/tx
Azelga 2 euro/kg
Aza 2 euro/kg
Koliflorra 3 euro/kg
Kalabaza 2,20 euro/kg
Kiwia 3 euro/kg
Tomate kontserba 3,90 euro/potea
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Espeltazko ogia 3,60 euro

“Pala txapelketaren helburua izerditzea eta ondo pasatzea da”

25 urteren ondoren Izurtzako Pala Txapelketa berreskuratu du Miguel Angel Alvarezek.

> MAIALEN ZUAZUBISKAR

Sei urtez palista profesionala izan den izurtzar honek Izurtzako Pala Txapelketa berreskuratu du. Orain dela 25 urte bezala, herrian pala txapelketa antolatzea erabaki du Miguel Angel Alvarezek. Izurtzarraren helburu nagusia kirolariek izerditzea eta ikusleek gozatzea da.

Nola bururatu zaizu pala txapelketa berreskuratzea?

Sei urtez profesional mailan jokatzen ibili ondoren, beti izan dut gogo horri txapelketaren bat antolatzeko. Orduan, alkatearekin hitz egin, eta baiezkoa eman zidanez, aurrera egitea erabaki nuen. Azken batean, ni izan naiz dena antolatu duena. Gutxi gorabehera hilabete bakarrean lotu dut dena, babesleak, dirua... Beraz, jendeak erantzun ona izatea espero dut; kirolariek eta ikusleek, guztiek disfrutatzea.

Txapelketa astelehenean hasi zen, eta hilabete osoa iraungo du.

Lehiaketak hilabete inguru iraungo du. Nire asmoa, finalak martxo aldera jokatzea da. Partiduak, hasiera batean, aste barruan izango dira, baina salbuespenen bat ere egongo da. Nafarroako bikote bik aste barruan ezingo dute etorri, beraz, horiek asteburuan jokatuko dute. Gaintzeko bikoteek astelehenetik ostiralera jokatuko dute.

Txapelketa nola dago antolatuta?

Bi mailatan. Lehenengo maila-



koen artean, hainbat profesional ohik jokatuko dugu, Javier Iriondok eta nik, besteak beste. Izena emandakoen artean Bizkaiko onenak daude. Hala ere, aitortu behar dut bikote gehiago egotea espero nuela. Askok, txapelketa izena eman baino lehen, ea nortzuek parte hartuko duten galdetzen dute, eta profesional izandakoak daudela konturatzera atzera egiten dute. Argi dago denoi gustatzen zaigula irabaztea. Baina pala txapelketaren helburu nagusia pixka bat izerditzea eta ondo pasatzea da.

Zulodun palarekin eta gomazko pilotarekin arituko zarete txapelketan.

Profesional mailan jokatzen den palarekin jokatzea ezinezkoa izango litzateke, horrekin Iriondok eta biok bakarrik jokatuko ahalko genuke. Zuloduna ez den pala batek kilo bateko pisua du, eta pilota ere larrikoa da. Nik gurago izaten dut zulodun palarekin eta gomazko pilotarekin jokatuko, frontenisean ibili baino.

Pilotalekuko modalitateen artean, batzuek frontenisaren alde egiten dute eta beste batzuek palaren alde.

Azken batean, frontenisean edonork jokatuko dezake, baina palan ez. Bigarren horretarako indarra behar da, palak pisu handiagoa baitu, eta askoz zailagoa baita kontrolatzea. Pilotalekuko modalitateak honela definituko nituzke nik: esku pilota gogorra, pala zaila eta zesta-punta ikusgarria.

Bestalde, orain dela 25 urteko txapelketak eta zuk antolatu duzunak antzekotasunik badute?

Ez, batere ez. Orduan antolatu zen txapelketa gutxi gorabehera berrogeita hamar bikoteek parte hartu zuten. Torneo hura oso handia izan zen. Irabazleak nortzuk ziren ere gogoan daukat, Irazola eta Mendia abadiñarrak. Aurtengoan, askoz bikote gutxiago egongo dira, baina jendeak kirola egin dezan, hamar bikoterekin ere nahikoa da.

Garai hartan 14 urte zenituen. Nola gogoratzen duzu txapelketa hura?

Oso polita. Gainera, jende asko batzen zen. Final egunean, Izurtzako pilotalekuaren inguruan 150 pertsona baino gehiago batu ziren. Orduan, gaur egun baino diru gehiago ere bazegoen, eta txapelketa antolatzea errazagoa zen. Sariak ere izugarriak izan ziren.

Bukatzeke, sei urtez profesional mailan egon zinen, nola-koak izan ziren urte haiek?

1990ean debutatu eta 1996ra arte ibili nintzen maila gorenean, Asegarcen. Urte haiek nire bizitzako onenak izan ziren. Maristetan nengoenean, 14 urterekin, banekien profesionala izango nintzela. 15 urtetik 18ra Bilboko Pilota Eskolan ibili nintzen, eta bi aldiz Espainiako txapeldun, eta behin txapeldunorde izatea lortu nuen. Interesa jarrita eta pilotalekuan ordu asko sartuta lortu nuen maila gorenera igotzea. Azken batean, txikitatik pilotalekuan sartuta egon naiz. Palan ere, kirol guztietan bezala, entrenatu eta saiatuz gero, helburuak lortu daitezke, baina osterantzean ez dago zereginik.

LAUHORTZA

JULEN ORBEGOZO

Kazetaria



Begia begi truk

“Begia begi truk, denak itsu geratuko gara”. Esango nuke Gandhik bota zuen hori iraganeko esaldia dela euskal gatazkaren testuingurura ekarrita. Baina, zoritxarrez, bada oraindik ukabildakadak jasotzen jarraitzen duenik.

Arkaitz Bellon gaztearen heriotzaren harira agerian geratu da Estatuaren espetze politika krudela eta ankerra dela. Baina espetze politika, kate herdoilduaren azkeneko katebegia da bakar-bakarrik. Espetze politikaren gaitetik zuzenbide errepresiboa dago, eta horren gaitetik Espainiako politikagintza eta politikari ustelak. Hiru maila horien leit motiva zein den badakit: mendekua.

Aitortu behar dut: gorroto larregi sortu da gure inguruan, eta mendeku gosea ikaratzeko modukoa da. Baina gorrotoa eta mendeku gosea politikagintzaren muinean kokatzea arrisku-tsuegia da. Eta hori egiten dute. Hain zuzen ere, horregatik gaude gauden tokian: gorrotoa zainetan dutenek presionatzen dute Espainiako Gobernuak, “mendekua da bide bakarra” maximo bere politikaren ardatzean kokatzeko. Mendekuaren Ministerioari zuku guztia atera arte jo eta ke jardungo direla dirudi. Madarikatuak.

Arkaitzen familia eta lagunei besarkadarik beroena bidali gura diet. Zenbat aldiz esango zenioten: “Eutsi, Arkaitz, laster gure artean izango zara-eta!”. Espainiaren mendeku politikak zuen semea eta laguna eraman du; eta min hori ez dizue inork erreparatuko. Baina besteoi esaten dizuet: “Eutsi, lagun, sasi guztien gaitetik...”.



2013ko irabazlea



Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel: 946 817 658

Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak

